Jon Alonso

Erretzaileen eremua

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2006 Jon Alonso
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2006ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Etxe erosia

Etxeak, kanpotik ikusita, ez zuen itxura txarrik. Barrutik besterik zen, ordea, eta iritzia ematera hurbiltzen ziren ingeniari-saldoak eta aditu-andanak ez zetozen bat.

– Lehen pisuko hormak gorde egingo nituzke; pikatu, luzitu, pintatu eta ongi geldituko zaizkizue. Diru gutxi gastatuta, gainera. Etor gintezke laguntzera.

Hau esaten zuena Lukas zen; Lukasen itzala etxegintza kontuetan handia zen, herri apartatu bateko eihera berritu baitzuen bost urtetan, emaitza ikusgarriekin, iparraldean, hor nonbait.

– Egin Lukasek esaten duena, eta laster zaudete adiskiderik gabe –esaten zuen Markosek.

Markos ez zen oso baikorra, eta erretxindu samarra zela ere esan liteke; baina bazuen ironia bat oso berea eta oso errotua eguneroko bizimoduan, eta bere sententziak ez ziren alde batera uzteko modukoak. Gainera Markos noranahikoa zen; igeltsero lanetan ibilia zen, abere-esplotazio zein negutegi batzuetan lan eginda-

koa ere bai, etxeko elektrikako konponketak berak egiten zituen, eta halako beste mila kontu. Esan nahi baita, gizon zaildua zela, brikolaje guztietan ibilitakoa, zertaz ari den dakien horietakoa.

Etxea Zuriñe eta Txatorena zen. Itzuli berriak ziren, urte luzeak itzalean pasa eta gero. Nonbait pausatu behar zuten. Herria gustatu zitzaien. Lasaia zen eta ez zen hiriburutik urrutiegi.

– Hau Jeneralak konpondu beharko luke –esaten zion Matiasek Zuriñeri.

Zuriñek irri egiten zuen, Zuriñek beti egiten zuelako irri, nahiz bere irria ez zen beti berdina. Matiasek Jenerala aipatzen zionean irri-algara ero samarra ateratzen zitzaion, «nora zoaz», «ez dakizu zer esaten ari zaren» edo «esaiozu zuk» esan nahiko balu bezala.

Nik Bigarren Auzolan Handian eduki nuen honen guztiaren berri, zakukada batzuk hondakin etxetik atera eta iturri ondoko edukiontzira eraman eta gero, Markos hurbildu eta hondakin zakukadak handik kentzeko, berriz hartu eta eskola zaharraren ondoko orubera eramateko agindu zidanean. Gero Lukas etorri zen ostera

ere, eta hondakin horiek eskola zaharraren ondoko orubean ez zeudela ongi esan zidan, errua nirea balitz bezala. Orduan erabaki nuen herriko taberna bakarrera trago bat egitera joatea, hondakin zakukadak ezertarako ere gehiago ukitu gabe. Auzolaneko besoen erdiak hantxe zeuden, zerbeza edo ardoa edanez. Nik ardoa eskatu nuen.

– Hau Jeneralak konpondu beharko luke –esaten zuen Matiasek, buruaren etsipen-keinu batez.

– Jeneralak Konstituzioko zortzigarren artikulua baizik ez du buruan –esaten zuen orduan Mikelek, algara artean. Mikel hau katxondo bat da, esan beharrik ez dago.

– Nahi duzuena esango duzue –zioen Martak–, baina nik ezin dut ulertu Pelik hartu duen jarrera.

Peli nahiko hippy eta oso progrea zen, baina egiazko teknikaria zen, hau da, ikasketak eta titulu eta guztikoa, esan nahi dut. Teknikari alternatiboa, nolabait esatearren eta horrek zerbait esan nahi badu, baina teknikaria, azken finean.

Peli etortzen zenean berarekiko elkarrizketak honelakoak izaten ziren, neu naiz testigu:

– Peli, zuk uste duzu zutabe hauek eutsiko diotela?

– Bai... –esaten zuen Pelik, batere segurtasunik besterenganatzen ez zuen ahots-tonu batez.

– Zutabe hauek eutsi? Ezta pentsatu ere! –esaten zuen beste batek, Markos, Lukas edo beste edozein ingeniari izan zitekeenak, hauek ikasketak eta titulu gabeak izanik ere.

– Baina bizitzak zailduak! –gogorarazten zuten, inork beren hutsune akademikoak mahaigaineratzeko beste gustu txarra baldin bazuen.

– Tira, kanpoko fatxadan pletina bat ezartzen bada... –esaten zuen orduan Pelik, ohikoa zuen tonu bare eta apalarekin.

– ¡Qué pletina ni qué hostias! ¡Pasando de la historia! –esaten zuen pletina hitza entzun orduko, oihuka, Matiasek, goiz-goizetik kanutoak erretzen egoten zenak.

Kanutoen eraginez, begiak gorritzen eta hanpatzen zitzaizkion; hori zela kausa, Armandok telebistan ikusitako boxeo-borroka baten boxeola-

riaren traza hartzen ziola esaten zuen. Armando ‘Boxeolaria’ deitzen hasi zitzaion Matiasi.

– Eta zuk noiz ikusi duzu konbate hori? –Ainara, kontu eske bezala.

– Zer uste duzu? Nik ere telebista daukat –defenditzen zen Armando, konbentzionalismoaren aurkako borrokan muga non ipintzen zuen adierazten ariko balitz bezala.

– Hori, hori! –animatzen zuen Mikelek–. Zer uste zuten ba! Erreibindikatu zure eskubideak!

Baziren aste batzuk ez genuela Peliren arrastorik. Kanpoan ibiliko ote zen galdetzen genion elkarri.

Hori gogoan, orduan nik zera esaten nion Martari:

– Ez dakit ba, Marta, hemen pintxe guztiek izan nahi dute sukaldari.

Esan nahi nion ulertzen nuela Peliren jarrera, agian ni Peli izatera berdin jokatuko nuela, baina ez nintzen ausartzen Martari hau honela esaten, haserretuko zitzaidan beldurrez, oso jenio bizikoa baita, zer esanik ez hierarkiak eta tituluak tartean daudenean. Ez dakit, igual arrazoi du eta pentsamolde zaharkitu baten adierazgarri petoa

baizik ez naiz, batzuetan aurpegiratzen didan bezala. Ez dakit, ni ez nago hain seguru.

– Gertatzen dena da ez dela *enrrollatu* nahi izan –esaten zuen Martak. Enrrollatu gora eta enrrollatu behera, guregatik balitz ez legoke hiztegiaren beharrik.

– Ei, neska-mutilak –Sara zen, tabernan sartu berri–, goazen eskola zaharraren ondoko orubera. Lukasek dio hondakinak mugitu behar direla handik.

– ¡Pasando de la historia! –zioen Matiasek, hori esateko zeukan tonu bereziarekin, bati zerbait zakarrontzira botatzen ari zela sentiarazten zion horrekin.

Batzuk joan ziren, baina nik besoak minduta neuzkan, hondakin horiek beroriek zirela kausa, eta geratu egin nintzen beste ardo bat eskatuta. Emilio neukan alboan, eta Emilio zentzuduna da, edo horren itxura dauka, eta horrek, gure artean, oso bakan egiten du.

– Jeneralak Konstituzioko zortzigarren artikulua baizik ez du buruan, jakina.

Nirea erdizka galdera erdizka baieztapena zen.

– Ez pentsa hainbesterako denik; baina hortik pentsatzera laguntzeko prest dagoela, nori eta bere seme Txatori, eta semeari lagunduta, zeharbidez bada ere, Zuriñeri...

Orduan kontatu zidan Jeneralak, batzuetan Ainararen etxera deitzen zuela, Txatoz galdezka, nahiz jakin behar zuen, sobra jakin ere, Txato jada ez zela Ainararen etxean bizi. Batzuetan hitz egin ere egin zutela. Baina ez ziola inondik ere Txatori zuzenean deitu nahi, Zuriñek hartuko ziolako beldurrez.

– Gogorra izan behar da Jeneral batentzat –saiatzen nintzen ulertzen Jeneralaren jarrera.

Gainerakoan ez pentsatzeko semeaz erabat ahaztuta zegoenik; epaiketan egon zela, eta estatuko hotelera behin bisitan joan zitzaiola.

– Eta Txatok zer dio?

– Txato pentsatzen hasia da hobe zegoela barruan, nik uste –esaten zuen Emiliok, maltzurkeria apur batez, eta irri egiten zuen.

– Gure adiskideak burgestu dira –esaten zion Zuriñek Txatori.

– Bufff –erantzuten zuen Txatok, itsaso zabala bezain antzemanezina zen hots bat ateraz.

Egia zen auzolanetik auzolanera jende gutxiago agertzen ginela. Nik segitzen nuen joaten, partez Zuriñek eta Txatok horrenbeste merezi zutela uste nuelako, partez Uxue joaten zelako. Uxue duela urte mooordo bat ezagutu nuen; gero pista galdu nion, sasian eperrari pista galtzen zaion bezala, beste urte mordo bat; eta batbatean han zen, hogei urte geroago, zazpi urteko alaba batekin eta lehengo aingeru-itxura berarekin. Aingeru bat zirudien, baina ez zen aingeru bat, eta horrexek egiten zuen erakargarri.

Markosek bereganatua zuen, Lukas, Peli eta beste zenbaiten iritziaren gainetik, obraren zuzendaritza, baina denak ez zetozen bat bere erabakiekin; batzuen ustez, hura dena txapuza itzela zen; beste batzuek oso ongi zihoala uste zuten. Zuriñe hor zegoen beti denei animoak emateko. Jakina, hark animorik ez bazuen... Txatok bufaka pasatzen zituen egunak, baina denean ahalegintzen zen.

Eraispen-lanak erlatiboki errazak izaten ari ziren, eta erlatiboki goiz bukatuko ziren. Handik aurrerakoa zalantzagarriagoa zen.

– Markosek igeltsero batzuk kontratatzeko asmoa omen dauka.

– Igeltseroak? Eta nork ordainduko ditu?

– Tira, igeltsero bat ordaintzeko beste egongo da...

– Zuk badakizu zenbat kobratzen duen igeltsero batek, orduko?

Norbaitek kopuru bat bota zuen, eta harridura-oihuak, miresmen-txistuak eta denetariko esklamazioak entzun ziren.

– Ostia!

– Zer!? Igeltseroek ez dute kobratu behar, ala? –pipertzen zen Pello, sindikalista ere bazena.

Lukasen, Peliren eta beste hainbaten proiektuak egokiagoak ikusten zituztenek Markosen lan-gaitasunaren gaineko zalantzak zabaltzen zituzten.

– Joño, bere etxeko teilatua konpondu bazuen...

– Ja! –esaten zuen, bakar-bakarrik, Lukasek. Eta, egia esan, ez zen beharrezkoa beste ezer gaineratzea zer esan nahi zuen uler genezan.

– Bere etxeko teilatua konpondu? Pablok egin zion, motel!

Pablo ia denen ezaguna zen igeltsero profesional baten izena zen, azken garai horietan, gure arteko elkarrizketetan, futbolzaleen artean Clemente edo eskultoreen artean Oteiza baino gehiago ateratzen zena.

– Pablok lagunduko zion, baina berak egin zuen!

– ¡Pasando de la historia! –erabakitzen zuen Matiasek.

Orduan eztabaida luze bat hasten zen, laguntza moduaz eta mailakatzeaz, are lagundu aditzaren egiazko esanahiaz ere, Sara sartu eta Txato adreilu-kamioikada bat deskargatzen ari zela, bera bakarrik, jakinarazten zigun arte. Orduan batzuk lotsatu eta deskargan hasten ginen Txatorekin batera.

– Ulertzen duzue orain zergatik galdu zuten gerra anarkistek? –botatzen zuen Pellok.

Eguerdian bazkariak egiten genituen, denok elkarrekin; Zuriñek eta Txatok ardoa ipintzen zuten, Martak patata tortilla batzuk eramaten zituen, Emiliok piperrak, nik ogia eta urdaiazpiko

pixka bat, besteak frutak, hurrena gisatu apur bat, hurrena etxean egindako bizkotxoa... Une gozoenak ziren, nahiz eta Lukas eta Markosen arteko garai bateko lehia berpizturik izan, nahiz eta Martak ez zion Peliri barkatzen, nahiz eta Emiliok beti pentsatu izan duen Matias ganoragabe bat dela eta Matiasek Emilio burges traidore bat dela, nahiz eta Sarak ni matxista bat naizela uste izan, nahiz Pellok uste izan Mikelen irri egiteko gogo etengabe hori ez dela parte onekoa eta Mikelek denok erotuta gaudela iritzi. Nahiz eta nik jakin Uxuerekikoa ezinezkoa zela, eta are, nahiz eta jakin, baita ere, hobe zela ezinezkoa izatea. Irri egiten genuen, hitz batez.

Gero kanuto pare bat pasatzen ziren, eta geure gisako zoriontasun bat atzematen genuen.

– Topa dezagun Jeneralaren osasunaren alde!

– Eta Konstituzioko zortzigarren artikuluaren alde!

– ¡Pasando de la historia!

Negua iristear zegoen eta teilatuarena konpondu behar zen hala edo nola. Jeneralak ez

zuen bizi seinalerik ematen, Zuriñe eta Txato bakailao-lehortzen ari ziren, Markosek esaten zuen igeltsero egiazko bat beharrezkoa izango zela, berak ere zerbait egingo bazuen ere, eta Pelik, behingoagatik, arrazoi ematen zion. Egoera larria zen.

Orduan etorri ziren Emilio eta Sara, eta bilera batera deitu ziguten. Argi eta garbi planteatu zuten afera: igeltseroa kontratatu beharra zegoen. Haiek arduratuko ziren kudeaketak behar bezalakoak izan zitezen. Gero gerokoak.

– Pablorekin hitz egingo dugu. Gainerakoa, gure kontu.

Batzuk konforme egon ginen. Ni neu bai, apur bat horrenbeste merezi zutela uste nuelako, apur bat ordurako besoetako mina iraunkor bihurtzen ari zitzaidalako, beste apur bat Uxuek esan zuelako Bartzelonara zihoala bere alabarekin. Baina beste batzuek etsi egiten genuela uste izan zuten, eta besteak bezalakoak ginela, *progre* itxurak eginda ere kontsumo-gizartearen morroi, eta beren lana mespretxatzen genuela.

Bilera luzea izan zen, adiskidetasunezkoa baina tenkatua aldi berean. Batzuek euskaraz

hitz egin zuten, beste batzuek erdaraz. Historia zaharrak aireratu ziren, gehienak mikrokosmos irrigarri samar baten ondorio zaharkituak, ada-bakiz jositako sasi-mundu baten ondare pitza-tuak. Doktrinak eta teoriak astindu ziren, benaz-ko eskrupuluak agertu ziren, baita arrazoi sasi-koak estaltzeko ideologiaz maskaraturiko beste batzuk ere, arrazoi praktikoaren agerpena ere ez zen falta izan. Aldiz irri egin genuen, aldiz hase-rretu ginen, gehiago edo gutxiago. Ahots ozen batzuk entzun ziren, tarteka, baina finean, aleak merezi izan zuen hainbeste lasto. Nik nahiko ongi bukatu nuen guztiekin, ez besteak baino hobea naizelako, beste honengatik baizik: azke-nean, nik porlan-zaku batzuk garraiatu, besterik ez nuen egin; beste batzuen konpromisoa asko-zaz bitalagoa zen. Hortaz, ez nuen deus esateko eskubiderik. Kontatzeko ere ozta-ozta. Gure bizi-tzak ziren.

– Ikusten? Nola irabaziko zuten gerra anarkis-tek, bada?

– Eta hemen nor da anarkista?

– Kabreatuta bahago, hire problema duk.

– Kabreatuta nagok, bai, baina nirea ezkerreko kabreoa duk.

– Ufaa!

Eta mota guztietako irriak, oihuak eta txistuak entzun ziren.

Gauean, bilera bukatuta, laguntzeko modurik egokiena zein zen, ez zegoen iritzi bakarra; hiru edo lau postura nagusi zeudela nabarmendu zen, norberak laguntzeko zeuzkan posibilitate, denbora, trebezia eta are gogoaren arabera. Gehienak, aldez edo moldez, zerbait egiteko prest zeuden, baina izan zen bere konpromisoa hantxe bukatzen zela esan zuenik ere.

Gauean, bilera bukatuta, denok ginen apur bat zaharrago.

Liderra

Iritsi zen une bat, zeinean oso garbi geratu baitzen gure kudeaketarako gaitasuna eta dohainak frogatu behar genituela, jendearen konfiantza geureganatu behar genuela, lasaitasuna eta segurtasuna transmititu behar genituela, nora joan nahi genuen argi geneukala erakustekoa. Ezkerreko optika batetik, beti ere, bistan da.

Orduan konturatu ginen lider bat behar genuela. Tristea zen aitortzea –eta batez ere tristea zen *guk* aitortzea–, baina lider bat behar genuen. Jendeak, masak, ia mundu honetakoa joko ez zuen norbait; jendeak bere ohiko frustrazioetatik kanpo eta bere beldur arrunten gainetik sumatuko zuen pertsona bat, bi urrats aurrerago zegoela ematen zuen norbait.

Orduan Harengana jo genuen. Berezkoa izan zen. Aukera gehiegi ere ez genuen.

Liderra, ordurako, aski baldartuta zegoen. Alkoholizatuta zegoela esatea errukigabeegia zen, igual, baina alkoholarekiko menpekotasun-gradu bat zeukala, errukiorregia. Jokalari konpultsiboa

zen, eta horretan ez zegoen adierazteko beste modurik. Lehenengo lana, hortaz, akats txiki horiek ahalik eta gehien, posible zen bezainbestean ezkutatuko zituen guardia pretoriarra osatzea izan zen. Partiduak ni izendatu ninduen zeregin horretarako buru.

Bigarrena, iritzi publikoaren aurrean ereinotzak berdetzeko aukera bat bilatzea zen, eta topatuz gero, huraxe baliatzea. Aukera laster topatu genuen. Ez zen zaila izan.

Martxoaren 11ko Guanajuatoko sarraskia ikertzen ari zen Batzordean sartu genuen Liderra. Batzorde horretan bertan, gobernuaren jarrera defenditzeko aukeratutakoa Lucho Vargas zen, Jaime Vargas lur-jabe handi eta ezagunaren semea. Lucho Vargas, bere gobernuak sarraskian eduki zuen erantzukizun begi-bistakoa estaltzeko edo erlatibizatzeko, aurrera eramaten ari zen jarduna lohia eta okaztagarria gertatzen ari zen, baita bere partiduan geratzen omen ziren eskrupuluko aleentzat ere. Herri xehearentzat, Vargasena zinismo hutsa zen, zinismo eskandalagarria. Vargasek egia-erdiak eta erabateko gezurrak nahasi, harira ez zetozen iker-bide

berriak irekitzen zituzten datuak –auskalo nondik ateratakoak eta nola lortuak– eman, kontrarioen desprestigioa bilatzen zuten trapu zikinak airera atera, eta oposizioaren interes maltzurrak iradokitzen zituen bileraz bilera, zalantzarik gabe aldez aurretik finkatutako egutegi ongi pentsatu baten arabera. Estrategia horren ondorioz, batzordearen bilerak eternizatzen, parlamentarioen arteko haserreak pizten, krispazioa neurrigabe handitzen eta, finean, ikerketa batzordearen lana erabat oztopatzen zen. Eta Gobernuaren erantzukizuna, erabatekoa, biribila eta erreala, lausotua geratzen zen, difuminatua azpijokozko itsaso baten erdian. Lucho Vargas partidaren erritmoa haustera ateratako erdilari zaildu bat zen, zelai lohitsu baten erdian. Eta partidaren norabidea aldatzen asmatzen ari zen, inork ez zekiela behar bezala erantzuten.

Corrientesko Udaleko elkarteko militanteengandik etorri zen proposamena. Bazegoen zelula hartan militante bat, kazetaria, Jaime Vargasen, Lucho Vargasen aitaren liburuak ezagutzen zituena. Bereziki, 1937ko apirilaren 27an Macondo

bonbardatu zutenekoa kontatzen zuena. Jaime Vargasek hainbat liburu utzi zituelako idatzita.

– Etxean ikasitakoa praktikan jartzen ari dela, horra esan behar zaion guztia –zioen gure militanteak.

Eta paper mordo bat erakusten zuen. Berak nahi zuena zen guk Liderrari mintzaldi on bat presta geniezaion, Batzordean hitza hartu behar zuenerako.

Ezaguna denez, 1937ko apirilaren 27an, Gobernuak, atzerriko potentzia baten abiazioaz baliatuz, Macondo herri meatzaria birrindu zuen, mila hildako baino gehiago eraginez, gehienak haurrak, emakumeak eta zaharrak, eta ezin konta ahalako kalte materialak sortuz, herria gerrilla maoistaren eskuetan zegoela aitzakia harturik. Ondoren, munduak jakin zuenean populazio zibil defentsarik gabekoaren gainean eragindako hondamendiaren nolakoa eta zenbatekoa, eta Gobernuaren aurkako erreakzioak sortzen hasi zirenean, honek gezur batez lurperatu nahi izan zuen bere erantzukizuna, Macondo maoistek berek suntsitu zutelakoa barreiatuz.

Jaime Vargasek zerikusia eduki zuen, aldez edo moldez, suntsiketa horretan, bonbardaketaren ondoren Macondo lurretik okupatu zuen gudarosteko ofiziala baitzen. Oraindik ere 1970. urtean, hau da, bonbardaketa gertatu eta 32 urte geroago, bere burua zuritzeko liburu bat argitaratu zuen. Liburu ahaztua zen, eta ordurako ez zen erraz topatzen, ezta liburutegietan ere. Liburu ahaztu horretako pasarte batzuek osatzen zuten Corrientesko militanteak zekarren materiala.

«Gertaera honek oraindik ere bizirik dagoen auzia piztu zuen», idatzia du bere liburuan, bonbardaketa bezalako egintza bat 'gertaera' moduan definituz, eta bonbardaketaren egileei buruz inolako auzia ez izan arren, 1970. urterako egia mundu guztian hedatu baitzen, zorionez. «Historiaren garai hauetan, inork ezin dezake ukatu Gobernuaren laguntzaz etorritako potentzia atzerritarraren abiazioak bonbardatu zuela Macondo», gaineratzen du, ebidentziaren aurka aukerarik ez daukala etsita, nonbait, «baina eraikuntzen hondakinak garbitzen egon zen zapadoreen konpainiak zalantzarik gabe ikusi zituen ge-

rrillari maoistek ipinitako dinamita-kargen aztarnak; eskua bihotz gainean paratua, baiezta dezakegu Macondon bizi ziren Gobernuaren aldekoei galdetuz gero nork suntsitu zuen hiria, denek aho batez erantzuten zutela: maoistak, maoistak izan dira. Are, bonbardaketa zazpi t'erdietan bukatu zen, eta zortziak aldera, oraindik ere, eztandak entzuten ziren maoistek erretiratzeko aukeratutako auzoetatik gertu. Eta artean Gobernuaren tropak urrun zeuden. Ez da bazter uzteko modukoa, beraz, maoistek bururatzea abioiek hasi zuten lana».

Estrategiaren lehen urratsa zen, beraz, modu honetan egiletzaren gaineko zalantzak hedatzea, susmoak ereitea. Ondorengoa da finkatzea Macondo triskatzeko agindua ez zuela Gobernuak eman, potentzia atzerritarraren agintariek baizik. Horretarako eszena hunkigarriki kastrentsea narratzen du. Nire aburuz, egiatan gertatu ote zen, posibilitate gutxi dago. Baina estilo-ariketa ederra da: «Potentzia atzerritarreko koronel batekin hizketan nengoela, Macondoko plaza txikitua aurrean nuela, zera esan nion: Beharrezkoa al zen hau guztia? Eta berak erantzun zidan,

inondik ere espero ez nuen zakarkeriaz: Hau, Macondon ez ezik, maoisten esku dauden hiri eta herri guztietan egin beharko litzateke! Sinetsi ezinik begiratu eta esaldia errepikarazi nion. Errepikatu zuen, errepikatu zuenez. Are eta bortizkeria handiagoarekin, gainera. Orduan nik kaserna-hizkerako alerik gogorrenak bota nizkion muturrera, eta «Koadratu zaitez!» eta «Ezta pentsatu ere!» izan ziren entzun ziren gauzarik xuabeenak, eskua paparrean jarri zidan arte. Enurarik gabe zetorren erasoa erantzuteko prest nengoenean, Estatu Nagusiko kapitain bat bion artean jarri, eta ahal izan zuen moduan, bereizi gintuen». Gero gertaera horrek zer nolako ondorioak ekarri zituen deskribatzen du, ondorio diziplinarioak, nondik ateratzen baita Vargas hobe atera zela bere aurkaria baino, zergatik eta Gobernuko Armadako agintariak ez zeudelako pozik potentzia atzerritarreko abiadoreek, beren aldetik, hartu zuten erabaki suntsitzailearekin.

Gobernua erantzukizunetik askatu ondoren, hona aldatuko ez ditudan beste paragrafo batzuen bidez, Macondo lurretik okupatu eta gero, herritarrekin zer modu amultsu eta humanitario-

an jokatu zuten kontatzen du. Estrategia zuritzailearen hirugarren urratsa.

– Eta hau guztia –zioen Corrientesko gure militanteak– 32 urte geroago, munduan ez dagoenean Macondon benetan zer gertatu zen zalantzan jartzen duenik, pinturak, pelikulak, sinfoniak eta monumentuak egin direnean Macondo birrinduaren alde. Lotsagabeagorik!

Gure militante zintzoak material guztia nire eskuetan utzita joan zen, azken aholku batez:

– Hortaz, Jaime Vargas aitak idatzitakoa erakutsi, eta hauxe esan beharko litzaioke bere semeari: Lucho Vargas, aski da, etxean ikasitakoa baizik ez zara errepikatzen ari, zure aitak Macondoko sarraskiaren ardura zuritzeko erabili zituen trukuak eta teknika berberak erabiltzen ari zara zu Gobernua Guanajuatoko sarraskiaren arduraz zuritzeko! Gezurti bat zara, zure aita gezurti ustela izan zen bezala! Faxista bat zara, zure aita izan zen bezalakoa. Hiltzailea, terrorista hutsa zara, demokrataz maskaratu nahi izanik ere.

Honen guztiaren berri eman ahal izan nion goizean Liderrak ez zeukan itxura ona. Gero jakin ahal izan nuen aurreko gauean dolar ba-

tzuk galdu zituela pokerrean, «gure aldekoak» (besteak baino fidagarriagotzat, bederen) jotzen genituen enpresariekin egiten uzten genizkion poker-partida pribatu horietako batean. Jainkoak, edo Leninek, jakingo zuen zenbat whiski edango zuen sosak galtzen zituen bitartean. Liderrak bestondoaren galbahetik iragazitako irrimodua egin zuen.

– Kaka zahar hori Vargasi aurpegiratzea? Jainkoarren, zer nahi duzu, bada, Lucho Vargasek ni eta nire karrera politikoa betiko hondatzea?

Partiduko Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi nion dena.

– Eta zein da zure jarrera –galdetu zidaten.

– Nire jarrera da: Ikerketa Batzordean ezin bada honelakorik salatu, zertarako nahi dugu Liderra bertan egotea?

Zuzendaritza Batzordekoek ezker-eskuin mugitu zuten burua, aitakeria ulerkorraz.

– Liderrarekin %5 igo dugu boto-intentzioa.

– Gehiago igoko genuke Vargasi Batzordean aurre egingo balio!

Zuzendaritzakoek hasperen egin zuten.

– Liderrak arrazoi du. Terreno horretaraz gero, Lucho Vargasek txiki-txiki egingo luke.

Niri egokitu zitzaidan Corrientesko militanteari berria ematea.

– Batzordeak eskertzen dizu zure ahalegina, baina markatua daukan bidetik segitzea erabaki du, jardun-lerro berriak aintzat hartu gabe.

Corrientesko militanteak erdizka baizik ez zuen ulertzen nire mordoiloa. Edo agian ongiegi ulertzen zuen. Zergatia jakin nahi zuen, noski.

– Uste dute zure materialak ez duela ematen ganorazko argudiobiderik garatzeko modua. Hitz batez, ez dela Lucho Vargas erasotzeko apropo-sa –bukatu nuen, azkenean esaldi arrunt bat egiteko gauza izan nintzela konturatu, eta pozik horregatik.

Gozo erantzun zidan. Partidua burokrazia jaten ari zela, eta...

– Nik uste erradikalegi iritzi diotela, lagun –saiatu nintzen, zerbaitek esaten zidalako ezin niola egoera horretan etxera joaten utzi–. Hortik hasiz gero, laster hasiko ziren gerrilla maoistarekikoak astintzen. Gaur egun ez da komeni...

– Martxa honetan, laster itzuliko dira gerrilla maoistaren garaiak!

Ez egoki goi mailako politikaren bidezidorretan ohitua, Corrientesko militantea. Baina bere hitzek durundi desatsegin bat utzi zidaten belarriotan.

Lonstein zen, Zuzendaritza Batzordekoen artean, nire erabateko konfiantzazko bakarra. Corrientesko militantearengandik oso gertu sentitzen nintzela esan nion.

– *Hura* da orain behar dugun liderra. Konfiantza transmititzen dio jendeari. Herriak sinesten ditu esaten dituenak. Oso hizlari abila da. Telebistako eztabaidetan ez dago bera bezalakorik...

Hori guztia egia zen, aitortu behar nuen. Niri ere harrigarria egiten zitzaidan eraldaketa ikustea; goizean eskuetako dardarak salatzen zuen izaki babesgabe horretatik, arratsaldean masak adoretzen zituen berbaldun jori eta, itxuraz, seguru horretara. Dudarik gabe, arizale aparta zen, eta ez dut esaten ironiaz, are gutxiago zinismoz, egiazko miresmenez baizik.

– ...eta emakumeei izugarri gustatzen zaie. Inkesta guztiek igotzen ari garela diote. Baina

Lutxo Vargasi koskabiloak ukitzen hasten bazaio, ez du asalto bat iraungo.

Oso litekeena zen. Baina horrek Liderraren hauskortasuna baizik ez zuen agerian uzten. %5 batek dena justifikatzen zuen? Lonsteinek pentsatzen ari nintzena igarri zuen. Ez zen bereziki zaila, bestalde.

– Lasai, hala ere. Agertuko dira lider berriak. Denbora kontua baizik ez da. Gu gara Liderraz baliatzen ari garenak. Komeni denean, alde batera utziko dugu eta betikoak izango gara berriz ere.

Horixe zen txarrena, betikoak izango ginela berriz ere.

Behi-kakatzatik askatzeko ahalegin alferrekoan itotzen den eulia bezala sentitu nintzen. Baina ez nuen eskubiderik gauzak dramatizatzeko. Azken batez, ni ere horretatik bizi nintzen.

Liderrak hartu nindunean arratsaldeko zazpiak ziren. Ordu hori berarentzat ona zen, jaiki ondoko mamuak, gin-tonik bat lagun, urrun egoten zirelako.

– Ulertzen dut zure ikuspuntua –esan zidan–. Urte gehiegi itxaron dut. Zu baino hamabost urte

zaharragoa naiz. Ez dut pretenditzen inori sinetsaraztea santu bat naizenik. Baina zer uste duzu, bakarrik bizio hutsez edaten dudala?

Aski irrigarria zen. Baina eskertu nion sintzeritatea. Finean, ez zen hain gaiztoa; bazen behintzat gune bat, non bere bikoiztasunak bat egiten baitzuen.

– Sistema bere burua iraunarazteko diseinatutako munstro bat da. Guri bizitza pixka bat eramangarriago egitea dagokigu. Sistematik kanpo ez gara ezer: balaz libre josteko moduko terroristak, besterik ez. Eta sistemaren barruan bagara, izan; baina ez ginena, edo izan nahiko genukeena, beste zerbait baizik.

– Betikoak, alegia.

– E?

– Deus ez. Nire buruarekin ari nintzen.

Arrazoi zuen, eta ez. Igual onena zen etxera joatea, erabat, Partiduaz ahaztuta, eta uztea gauzek beren berezko bidea segi zezaten, historiak beste aukera bat emango ote zigun aiduru. Guk hondatzen ahalko genuen beste aukera bat.

– Dimisioa aurkeztuko duzu? –galdetu zidan.

– Nire bizitza dimisio-segida baten historia da. Ez, ez dut dimitituko. Oraingoan bota egin beharko naute. Trago hori ere ez diet galarazi nahi.

Elkarri bostekoa eman eta alde egin nuen, banekielako nekez ikusiko nuela gehiagotan.

Gaizki egin nuen bostekoa emateagatik? Ez, ez horixe. Edo bai, agian. Gaizki egin nuen etxera joan nahi izatearekin? Ez, gauzek berezko bidea egingo zutelako. Bai, ez zegoelako jakiterik, hainbatgarren errebuelta pasa eta gero, zenbat gauza geldituko ziren bidean, betiko galduak.

Zamaria

Hau –esaten zien entrenatzaileak taldeko berriei, aurkezpen egunean, atezaina seinalatuzzuen aita da; beste hauek –erdiko atzelaria eta liberoa– zuen ama eta zuen izeba; hango hura –hori erdiko aurrelaria zen– seme nagusia. Eta beste hau... –eta orain Zamaria seinalatzen zuen– zuen amona: beti dabil txokolatinak oparitzen.

Zamaria ez zuen egiazko izena, futboletik kanpoko goitizena baizik. Ekipoan *Amona* deitzen zioten, hainbeste txokolatinaren ordain.

Zelai lokaztuek larruzko baloiak pisu jartzen zituzten garaietan aritu zen Zamaria, 60ko hamarkadaren bukaeran, hor nonbait. Urte gogorrak ziren. Zizare buztan batengatikan edonor preso eramaten zutenekoa. Militante baten borroka lantokian eta kalean egiten zenekoa. Orriak ziklostilatu eta zabaldu ez ezik, norberak idatzi behar izaten zituenekoa.

Infantiletatik entrenadore guztiek bazekiten taldea bat zela Zamariarekin, eta beste bat hura

gabe. Ikusleek ez hainbeste. Zaila zen esatea non aritzen zen. Erdilaria zela esatea izaten zen korrienteena, baina injustua zen. Behin kazetari batek definitu zuen hobekien: orotarakoa. Zelaitik kanpo jasaten ez zuten kideek ere ondoan nahi izaten zuten zelai barruan. Zamaria beti zegoen han, oin bat ateratzeko, lateral baten hanka-joko geldoak bezperako ardo gehiegia salatzen zuenean; erdilarien lerroa betetzen zenean, falta egingo zuen gupidagabe; baloia azkar asko emango zion hobekien ikusten zuen kideari; eta aurrelari bati joko lioketen ostikoa berari jotzen zioten. Hauspo falta nabarmentzen zuen zelai-tokira laster iritsiko zen kilometrokontagailuari begiratu gabe. Zamaria zegoenean denek uste zuten hamabi aritzen zirela.

Futboletik kanpo, profesionalean aritzen zen ikasten. Bi irakasle bota zituztenean atera zen kalera estreinakoz. Gutxik egin zuen ez zutela bera ere eskolatik bota. Orriak bete beharrak irakurtzera eta bere burua prestatzera eraman zuen.

Hemezortzi urterekin hirugarren dibisioan debutatu zuen. Futbol mundukoek ez zuten zalan-

tzarik segundan, gutxienik, jokatzeko dohainak zituela. Eibarren, edo Osasunan. Hortik gora... Baloia oinetan ez zangotrabatzeko beste ofizioa zeukan, doi-doi, motzean ondo mugitzen zuen pilota, eta azkar; hamabost metrotik haratago okertzen zitzaion, ordea, begira-puntua. Zelaian inoren aurrean ez zen isiltzen, laguna edo kontrarioa izan, baina erabakiak diziplinaz onartzen zituen. Bere ikuspuntua eman eta gero, beti ere. Bizia emango zuen ekipoaren alde.

Hanka sartzeak ez zion beldurrik ematen, baina bazekien bere burua babesten. Inor ez izaki patuaren jokaldietatik libre, ordea. Behin orpo aldeko takoak larregi ilkatu zitzaizkion zelai lokaztuan, hanka jiratzen ari zela, eta korrika bizian zetorren kontrario bat hanka gainera erori. Belauna triskatu zitzaion, eta hogei urte ez zituela futbola utzi behar izan zuen betiko. Herrenka dabil ordutik.

Handik urtebetera preso eraman zuten. Garai hartako sona handiko ekintza batean parte hartu zuelako. Orduko hizkeran, «klase menperatzailearen kontraesanak agerian utzi zituen» ekintza horietako bat.

Kartzelan zazpi bat urte egin zituen. Ikasi egin zuen; filosofia, soziologia... letretako karrera horietako bat atera zuen.

Trantsizioaren urte horietan atera zen kalera, eta Alderdi berrian sartu, klandestinitatean burkide izandako gehienak bezala. Garai horietan ere tratatu nuen zer edo zer.

Gero, denbora aurrera ahala, herritar soil bihurtu zen, egunean zortzi ordu egiten dituen itzal horietakoa. Jendeak, mikrohistoriaz arduratzen direnez landa, ahaztu egin zuen.

Nik ere erdi ahaztuta neukan. Bere gomuta etorri zitzaidan Autobiografia Inportante bat irakurri nuenean. Hainbestetan aipatzen zuen. Askotan. Printzipioz uste izatekoa zena baino askoz garrantzi handiagoa hartzen zuen Zamariak Autobiografia Inportante hartan.

Mikrohistoriaz arduratzen denetakoa naizenez, bilatu egin nuen. Hogeita piko urte geroago garai hori guztia gogoratzeko aukera eduki izan nuen; Zamaria eta beste *ohi* batzuk –militante ohi, fede guztietako sinestun ohi, idazle ohi, are seme-alaba ohi edo senar-emazte ohi... ere– txikiteoan ibiltzen ziren parte zaharrean. Halako

talde koloreaniztun eta aldakorra osatzen zuten, eta *ohi* izatea zen, hain segur, beren ezaugarri komun bakarra, nahiz eta askok elkar ezagutzen zuten aurretik, edo elkarren berri zeukaten, edo inoiz topo egindakoak ziren bizimodu aski heterogeneo eta heterodoxo baten kariaz, heterodoxiaren nolakoaz eta zenbatekoaz desberdintasunak zeuden arren. Onartu egin ninduten, egun batzuetako solaskide berezi.

Esan nion Zamariari, «hi, Zamaria, hi ez haiz gogoratuko, baina lehen aldiz elkar ikusi genuenean hau eta hori, honela eta hala». Eta Zamariak irri algara egin zuen esan nionean, ez irrigarria zelako, baizik eta bazelako, nik uste, begira bizitza nolakoa den, zenbat buelta ematen dituen, edo horrelako zerbait esateko modu ez ohiko eta ez-berbako bat; eta bestetik, laster ikasi nuen Zamariak denbora osoan irri egiten zuela gauza guztiengatik, edo ia guztiengatik, grazia eduki edo ez, bat konturatzen zen arte irri hori defentsa-ezkutu izugarria zela, zitzaiola; bere baitatik erbesteraturik ihes iraunkorrean bizi zen pertsona baten defentsa-ezkutua, ausaz; eta hau ez da kritika bat, apunte karakte-

rologiko xumea baizik, besteok ez ginelako hobeak edo osatuagoak, edo ausartagoak edo errotuagoak; eta gainera ez genuen hain maiz irri egiten, eta irri egitea, arrazoiarekin edo gabe, zaharrago eta gehiago estimatzen den dohaina da, hortik kanpo ez dagoelako helduleku askorik, euskarri benazkorik. Ni pixka bat estimatzen ninduen, neu izan nintzelako *orotarako* jokatzen zuelakoa atera ziona.

– Niri dagokidanez, denak gaizki zaudek –esan zidan–. Hasiera-hasieratik. *Zamaria* futbolean aritzen nintzeneko ezizena zela esaten dik, eta hori ere gezurra duk. Ni *Amona* ninduan futbolean.

Gauza gertatuko zen Barrenkale eta Barrenkale Barrenaren arteko karrika estu eta labur horietako batean, bi ardo beltzen artean, seguru asko txikitero koadrila gehienak erretiratuta egongo ziren orduetan, Athletici zein erraz sartzen zizkioten golak komentatzen ibiliko ginen, eta nik Zamariari esango nion, Mikrohistoria liburu bat idazteko asmoa diat. Berak erantzungo zidan, irriz, Gurekin bene-benetan mikro aterako zaik, bai. Eta horrela hasiko zen dena. Elkar pro-

bokatuz edo. Ez erronka handitan, edo esaldi ozenetan, baizik eta komentario itxuraz inozoen bidez, elkarri tentatuz bestearen erantzunaren nolakoa neurtzeko. Sar gaitezen benetan merezi duen gaiarekin, nire bizitzaren –eta zer esanik ez, areago zure bizitzaren– gaiarekin. Horixe zen nire probokazioaren funtsa, hitzak beste batzuk izango ziren, ordea. Sar zaitez zeu, zen Zamariaren erantzunaren 'itzulpena'. Baina informazioa beharko nuke, ostera nik, kriptikoki esanda hau ere. Informazioa, informazioa... eta hor Zamariaren erantzunaren egiazko esanahia apur bat lauso geratzen zitzaidan, bai zelako, baina ez ere bazelako. Alegia, esan dezagun, informazioa emateko prest egon zitekeela esaten ari zitzaidala. Segun eta nola. Eta zenbat. Informazioaren kudeaketa arduratsu baten alde zegoen. Ulertzekoa zen. Azken finean, ni arrotz bat nintzen berarentzat.

Garai haietan, ikusi ahal izan nuenez, txikitero koadrilaren ibilerak ia egunerokoak ziren, asterokoak seguru, «kolgatu» batzuk zirelako, koadrilako bakarren batek esaten zuenez; «Sabigaingo jamoi bat baino kolgatuago gagoz» esan

ohi zuen, bere hitz zehatzak errepikatzearren; baina ez zuten zerrenda pasatzen, eta batzuetan asteak pasatzen ziren kolgatu jakin bat ikusi barik, edozein arrazoi medio ez zelako etortzen; noiz edo behin igual batek galdetzen zuen norbaitez, ausentzia luzatzen bazen, eta hasierako okurrente horrek berak esan ohi zuen, horrelakoetan, «haren jamoia erretiratu dabe». Ez da gauza bera, baina saskibaloi-taldeko izarren kamisetekin horrela egiten omen dute Ameriketan, izarra erretiratzen denean kamiseta taldetik kendu eta kiroldegiko sabaitik eskegi, nik horrekin lotzen nuen hitz-jokoa, bazitekeen txikiteroak ere bi ideia horiek hala edo nola elkartu izana. Edo agian dena izango zen urteetan (ni bezala) kirol kazetaria izandako baten deformazio profesionala. Igual zen, esamoldea balekoa zen, indarra zeukan. Eta Zamaria ‘jamoia erretirata’ ibiliko zen handik puska batera; baina hori baino lehen ez zion muzin egin Autobiografia hartan bera aipatuz esaten zirenei buruzko iruzkinak egiteari. Niretzat, egunkarietan-eta egiten duten bezala, neurria azpimarratze aldera, patata

erraldoi baten ondoan ipintzen den tabako paketea bezalakoa izan zen.

– Eta gainerakoetan, berdintsu. Mortimerrekin kartzelan egon nintzela tematzen duk, eta Mortimer eta biok ez gintuan sekula elkarrekin egon, barruan; kanpoan, atera ginenean, bai. Barrura baino lehen ere elkar ezagutu genian, baina biak inoiz elkarrekin kartzelan, ez.

Eta gero, militante batentzat ohikoak diren hainbat eta hainbat jarduera eta zereginen berri ematean, Autobiografiatua noraino okertzen zen azaltzen zidan: harako afari hartan urlia ez zela egon; beste ez dakit nongo kongresutako ponentzia hura ez zela izan gai horri buruz, beste honi buruz baizik; Madrilgo bilera hartan hau eta hura ez zirela egon, eta sandia eta berendia bai; halakoekin egindako elkarrizketan ez dakit zeren alde egon zena ez zela bera izan; militantziaren bizkarrez hartutako zenbait erabakiren kontua...

– Azpijokoak ez dituk inoiz gomendagarriak politikan, baina are gutxiago alderdikideen artean, inoren fede onaz baliatuz. Engainatuak fede onez ere oldar zitezkek, denen kalterako.

Zamariak justifikatzen zituen akatsetako batzuk –ez denak–. Esaten zuen Autobiografiatua bere paperekin oso desordenatua izan zela bere bizitza osoan. Baina, guztiarekin ere, berea ez zen Autobiografiaren aurka kontrajartzen zen beste autobiografia bat, autokritikoa ere bazenez.

– Autobiografia-jeneroaren aurkako iritzi sendoa zaukaat. Autobiografiatuak ez ditik sekula azaltzen kontatzen duen garaiko pertzepzioak, oroitzapenak idatzi dituen unekoak baizik. Ni oroimen txarrekoa nauk.

Bitartean, hasia nintzen ulertzen Autobiografiatuak, benetan, une zehazgabe batetik aurrera zer nolako tirria eduki zion Zamariari; hari buruzko inpresio txar orokorra ematen saiatzen zen, batere halabeharrezkoa ez zen plan ongi kalkulatutako bati jarraiki: Zamariaren akatsak –bai eta fisikoak ere, herrenka baitzebilen futbolari zela lesionatu zenetik!– azpimarratuz, liburuaren pasarte ongi pentsatutakoetan estrategikoki barreiatutako berari buruzko datu negatiboak edo jarrera bidegabeak leporatuz (Zamariak sistematikoki, eta datuak emanez, ezeztatzen zituenak);

eta are nazkagarriagoa zen, dena maitasun faltsuzko erretorika ustel baten barruan, eta aitakeria enparagarri batez –hauek ere ongi hausnartutakoak– bildurik azaltzen zuen ber. Ez nekien honetaz nola galdetu, eta ez nintzen ausartzen zuzen galdetzen, lotsaz; auzo-lotsaz, baina, kalkulatuz nik sentitzen nuena ez zela ezer izango Zamariak sentitzen ahal zuenarekin. Nola hala egingo nion galdemodua-edo:

– Damutuarengan ez zagok damurik, pertsonalitate berri baten eraketa baizik; izaera erretroaktiboa duen eraketa, gainera. Hau duk, eraketa berriak ez dik hartzen bakarrik damua etorri zenetik aurrerako bizitza, baizik eta damua baino lehenagoko bizipenetara ere proiektatzen duk.

Hala izango zen, noski; baina ez bide zen konturatzen, edo ez zuen ikusi nahi, niretzat gero eta garbiago zegoena: oroitzapeneko ustezko akatsak ez zirela paperen desordenaren ondorioa; eta Zamariaren agerpen errekurrentea, orrialde horietako une ongi aukeratutakoetan, berau bihurtzen zutela, gure errealitatea batere ezagutzen ez duen irakurlearentzat –eta

haientzat zen liburua, inondik ere–, pertsonaia desatsegin, desgaraiko eta desegoki: politikarako ez gauza, hitz batez. Jakina, ez zen harritzekoa, azken finean Zamaria eta beste batzuk buru zirela, militante-talde batek behar bezalako zatiketa bat eragin zion alderdiari, zatiketa antolatu bat eratu zion Autobiografiatuari, ordura arte, Alderdia nora zihoan asaldaturik, dozenaka –baina bakarka!– joaten ziren militanteen hutsak gutxi bailiran.

– Orduan egindakoak geroko ideiekin justifikatzen ditik, orduan ere dena garbi zeukala sinetsarazi nahiz. Askoz mantsoago joan zen joan nahi zuen tokira, eta azkenean soinekoarekin bakarrik iritsi zen. Hori bai, bere esku zegoen guztia desegin ondoren.

Gorrotorik eta ageriko pasiorik gabe mintzatzen zen Zamaria, burdinbide hil bateko geltokiko orratz-zaina balitz bezala. Euria ari zuenean herrena areagotzen zitzaion. Nik esan behar izan banu, Autobiografiatua Zamariaren beldur egon izan zen pixka bat; eta beste pixka bat bekaitz, jeloskor. Lehiakide sentitu izan zuela, horra, eta ez burkide.

– Badakik tristeena zer den? Berarentzat jada jasangaitza nintzenean, ni oraindik bere jarraitzaile sutsua nintzela.

Egun hartan etorri zen norbait, Athletici beste hiru gol sartu zizkiotela esanez. Ondorengo prentsaurrean futbolari gazte txar bat atera zela esateko ez zegoela arazorik, berak argi ikusten zuela bazegoela taldea aurrera ateratzeko kalitatea, eta konpromisoa.

– Gutxienez plantillako behi sakraturen batek esan izan balu... Baina horrek! Lotsagabe halakoa! Nola leike!

Beste batek zioen orain, nola erantzun behar duten ikasteko saio eta hitzaldietara eramaten dituztela gaztetatik, eta galdera bat entzunda arrapostua automatikoa izaten dela, eskuliburuak, aukeran, gomendatzen dituen hiru edo lau erantzunen araberakoa.

– Nola aldatu diren garaiak, e, Amona?

– Bai, baina baduk zerbait sekula aldatzen ez dena: izarra izateko, anbizioa eduki beharra zagok. Futbolean burua ateratzeko, halako bokazioa beharrezkoa duk.

Zamaria, futbolean izan zen apurra, eskuzabal izanda izan zen, eta zintzo jokatuta.

– Eta hori txarra da, ala?

– Ez, taldea izorratzen ez duten artean. Zoritxarrez, izar asko ez duk sekula hori konprenitzera iristen.

Afera pertsonal bat

B-k begiratu zituen zerutik pasatzen ziren hodeiak ordura arte sekula begiratu ez zituen bezala.

B ez zegoen ohituta erabakiak hartzen; izan ere, oso erabaki gutxi hartu zituen bere bizitzan, eta kasik bakar bat ere ez zen bere-berea izan; gehienetan beste hirugarren pertsonaren bidez edo delegazioz harturikoak izan ziren, hartu zituen gutxi horien kasuan. Horren ondorioz, ez zen benetan ezertan inplikatzen, dena berarekin joango ez balitz bezala zen, dena inpertsonala. Baina hori bezperatik aldatu zen. Bezperatik B-k bazekien orain bai, orain erabaki pertsonal bat hartu behar zuela, ezinbestez. Izan ere, B hil behar zen, laster.

Hodei bat pasatzen ari zen, eta kontinentearen eitea zeukan beste bat, lehenaren ondoren.

Zer puntutaraino laster, ez zegoen hain garbi, baina medikuak bezperan esan zionaren arabera, ez zuen espero behar sei hilabete baino gehiago bizitzerik. B-k serio baino lasai hartu

zuen medikuaren epaia, hainbeste ze medikuak, bere baitan, miretsi baitzuen bere baretasuna eta odol hotza. Horra hor edozertarako prest dagoen gizon heldu eta jakintsu bat, pentsatu zuen. Baina medikua oso oker zegoen, eta B-ren baitan ez zegoen medikuak egozten zizkion bertutetik bakar bat, ezta denik eta neurririk txikienean ere. Medikuaren albistea entzun zuenean, nagusitu zitzaion lehen sentimendua hastioa izan zen, berriak hainbat lan nekagarri egitera bultzatuko bailuen: abokatuari deitzea, adiskideren batekin edo urrutiko senideren batekin harremanetan jartzea... Orokorrean, telefonatzera eta etxetik ateratzera behartuko zuten ekintzak, ekintza gogaikarriak. Horrek aspertzen zuen, eta hortik seriotasuna. Bestetik, bistan zen ez zela hasiko telefonatzen medikuaren bulegotik bertatik, eta hortaz, ez zegoela inolako mugimendurik egiten hasteko arrazoirik. Eta hortik lasaitasuna. Eztul ahul batzuk egin zituen, aztoramen iragankor eta oso arin baten mende, une batez, egon izan balitz bezala, eta hori izan zen dena. Hainbesteko hoztasuna erakutsi zuen bere heriotzaren iragarpenaren aurrean, ze medikuak berak

ere gehiegizkoa iritzi eta benetan ulertu ote zuen zalantza egin baitzuen, eta berria errepikatu. Badakit gizon bat bezala arituko zarela desgraziaren aurrean, esan zuen medikuak.

Baina B-k ez zuen errepikapenik behar, ederki ulertu zuen esaten zitzaiona. Nazkagarria zen. Burutik pasatu zitzaion lehen gauza abokatuari hots egitea izan zen, esateko, ohi bezala, begira, arazo hau daukat, konpon ezak, okupa hadi. Baina abokatua ez zen bera eta heriotzaren artean tartejartzen ahal den hirugarren pertsona bat. Gero pentsatu zuen M-ri deitzea, M baitzen bere laguna, M baitzen B-ren herentzia handia oso irizpide on eta begi bizkorrarekin kudeatzeaz urteetan arduratu zen enpresaria, M-ri deitzea beraz, eta esatea, hi M, inporta zaik hiltzea nire ordez? –beste hainbatetan hi M, inporta zaik joatea bilera horretara nire ordez? esaten zion bezala–, baina hipotesi hau, hain justu, edo hipotesi honen ezinezkoa, zehatzago esateko, izan zen, hain zuzen ere, lehen krisia sorrarazi ziona, hipotesian zetzan ezintasun horrek agerian jartzen baitzuen, bere ankertasun gorrienean, oraingo honetan ezin izango zuela inorengan delegatu,

eta norbera hiltzea kontu aspergarriki, higuingarriki eta kondenatuki pertsonala zela. Egiazko arazo bat, beraz, B-rentzat.

B-k begiratu zituen zerutik pasatzen ziren hodeiak ordura arte sekula begiratu ez zituen bezala. Ninbo, kumulu eta zirruak ikusi zituen, harietan desegiten zirenak irudi apetatsuak osatu eta gero; hariak desagertzen ziren azkar, haizeak eramanda, eta laster haizeak berak ekartzen zituen beste hari batzuk, ostera ere irudi apetatsuak osatu eta ninbo, kumulu edo zirru bihurtzen zirenak berriz, eta beti hor egon izan bailiren zen, hor egon izan bailiren eta B-k sekula ikusi ez bailituen; baina egon, hor egonak ziren beti, eta horrek berak egiten zituen berri, eta horregatik B-k begiratzen zituen ordura arte sekula begiratu ez zituen bezala. Hodeien joan-etorri horrek den-dena esplikatuko zuelakoan, hor gordetzen zelakoan jakintza isil, esanezin baino inoiz huts egiten ez zuen bat. Eta hala ere, beti han egonak ziren.

Han egonak ziren beti; imajinatu zuen hodei horiek berberak ikusiko zituztela, esaterako, Platon batek edo Aristoteles batek, guk mundu za-

harrekoak jotzen ditugunak; hodei horiek berberek estali zutela euren mundu zaharra. Gure ustez zaharra, haiei ez zitzaielako zaharra iruditukо, geroni gurea zaharra iruditzen ez zaigun bezala –aitzitik! Teknologia eta berrikuntzaren goren puntuan gaudela uste dugu-eta!–, baina gurea zaharra iruditukо zaien bezala bi mila urte barru biziko direnei. B gozatu zen pentsatuz, une batez, Platonek edo Aristotelesek, haiek ere, gaurkotasunaren eta berritasunaren paradigmatzat edukiko zituztela euren buruak, guk gureak ditugun bezainbeste; eta bi mila urte barrukoek ere guri errukiz eta konmiserazioz begiratuko digutela, gure panoplia teknologiko zaharkituaren, gure uste barregarrien, gure kezka ulertezinen berri izatean, guk orain greziar zaharrei begiratzen diegun bezala medikuntzan izainak erabiltzen zituztela jakitean, edo beren erretorikari buruzko kezken berri dakigunean, esaterako.

Orain B-k, bere irudimenean, traktore erraldoiaren itxura hartzen zion bat pasatzen ari zen, bere gurpil handi, ke botatzeko tximinia eta kabinarekin. Kabina barrua hutsik zen, ordea. Zer irudika zezakeen Platon edo Aristoteles batek

hodei hori bera ikusi zutenean? (zalantzagabea baitzen ikusi zutela hodei hori). Ez traktore bat, inondik ere. Errotarriak irudituko zitzaizkien, edo ezer ez, edo etortzear dagoenaren zeinu konpreniezina; berak, B-k, ezeren itxura harrapatzen ahal zion, ba, oraintxe, kotoia balitz, bere begi aurrean hedatzen zen beste hodei trauskil, moldagaitz horri? Eta hala ere, hodei horrek ere bazeukan inguru aldakor baino aldi berean nabarmenak ematen zion forma ezagugarria, berorri zegokion objektua artean asmatu gabea bazen ere; Platoni traktore itxurako hodeiarekin gertatu bide zitzaion bezala gertatzen zitzaion B-ri ezein forma ezagunetan errenditzen ez zen hodei baldres horrekin. Ez zen unibertsoa aldatzen zena, beraz, pertsona baizik; ezta hori ere, ez zen pertsona aldatzen zena, pertsonaren begiratzeko modua baizik. Baina, unibertsoa errepikakorra, zirkularra, aldaezina bada, eta gure begiak baizik ez badira aldatzen, eta gure begirada huskeria baten arabera –kandela ala errota izan, traktorea ala transatlantikoa izan– aldatzen bada, orduan... B-k begiratu zuen berriz milioi bat aldiz milioi bat modutara begiratutako hodei

mutaezin hura, eta hasperen egin zuen, arrazonamendua burutzeko ezindurik; une batez damua sentitu zuen, berak ez zeukalako lagun bat hari esateko, aizan, aizak, hiltzen ari nauk, naun, topa dezagun azkenekoz, ez zuelako ezer berezirik egiteko beharrik sentitzen, ez zeukalako alaba bat, zeinari azken gutun luze eta hunkigarria idatzi *(Alaba maitea, bihotz-bihotzekoa: heldu da nire azken eguna, heldu da zu zeu zerk sortu zintuen zerorrek jakiteko eguna, nahiz eta letra hauek irakurtzen dituzunean neu jada urruti, oso urruti, izango naizen*...), ez zeukalako bere azken egunei zentzua emango zien egitekoen zerrenda luze bat; inbidia eduki zien pertsona arruntei, horrelakoetan beren aferak konpondu eta dena ongi eginda utzi behar izatearekin, edo dena ongi eginda utzi dutelako ilusioarekin, beren heriotzaren hurbila, nolabait bada ere, ahaztera iristen diren horiei. Berak ez baitzuen harrei eman beharreko gorputz bat, gorputz hura, berea, besterik. Asuntu kondenatuki pertsonala, bistan denez.

Enpresari aberats baten seme bakarra, B-ren bizitza bera eta errealitatearen arteko bionbo

jartze etengabe bat bezalakoa izan zen. Bere bizitzaren baldintzak oso bereziak izan ziren; bakardade iraunkorreko, zelofanezko inguru batean bildurik bizi izan zen beti, jende arrunta hilduratzen duen kezketatik aparte. Berak ez zuen, esaterako, sekula soldata bat irabazi behar izan bizirauteko; aberatsa baitzen jaiotzez, ez zuen kezka ekonomikorik sekula eduki. Ez zuen inoiz eduki tratu handirik beste gizon edo emakumeekin; gazteagotan saiatu zen, bai, zenbait harreman lantzen, jende arruntak *kausa* deitzen duen horietakoren batean, denborapasa hutsez, engaiatzen, baina horrek ez zuen luze iraun. Nekagarri zitzaion besteekiko tratua; ez ulertzen ez zituelako gizakia mugiarazten duten motibazioak, ez; nekagarri zitzaion, besterik gabe, emozioa, sentipena, umorea, forma jakin batean bildu behar izatea, egoera zehatz bati erantzun bat eman behar izatea, erantzun horrek beti eskatzen zuelako, ezinbestez, gorputz-jarrera bat, esku baten keinua, aurpegiko giharren konposizio bat; eta B, nagi izateaz aparte, ez zen inoiz seguru egoten ematen zuen erantzunaren egokiaz. Zergatik altxatzen zituen bekainak, adibi-

dez, agian esku-ahurrak belaunburuetan emeki pausatuz sotilago laburbilduko zuen barne-egoera baten berri emateko? Zer abantaila zeukan hitz lagunkoi batzuk esateak, elkarrizketaren une jakin batean, isiltasunaren aurrean? Zalantza handia zen eta egoera guztietara iristen zen, halako moldez non sortzen zion inhibizioak deus egiterik galarazten zion. Bere izateko modu honek, bistan denez, harremanetarako zailtasun handiak ekarri zizkion. Batzuek uste zuten autista zela –eta ez zen–, beste batzuek erremediorik gabeko ergela, beste batzuek ezin zuten eraman harropuzkeria jotzen zuten itxura horiekin, askorentzat *snob* bat zen, zenbaitentzat odolkidetasunak eta endogamiak ahuldutako sasi-aristokrazia leinu baten azken alea, errukarrienek negutegiko lore ikusten zuten, eta bere bizitza bitxiari, eta inolako zailtasun arruntik gainditu behar ez izanari leporatzen zioten denek xelebretzat –zerbait okerrago ez bazen!– jotzen zuten jokamoldea.

Baina paradoxikoki, lagun arteak erantzun somatiko bat eskatzen zuenean, horrek beregan hartuko zuen forma higuingarria, jasanezina ba-

zitzaion ere, ezin liluragarriago iruditzen zitzaion egoera berdintsuetan besteen erantzun somatikoek hartzen zuten formaren ikuslea izatea. Horregatik, bere gisako *voyeur* bat izateagatik, B-k ikaragarri maite zuen zinema; are, esan liteke, bere bizitzaren pasarte batzuetan, batez ere, zinemari esker bilatu zituela bestela nekez aurkituko zituzkeen bizitzeko akuiluak. Zinema ikusgarri goren zitzaion, baina ez haatik inspirazio iturri edo bizitza praktikorako ispilu; esaterako, ez zitzaion sekula burutik pasa Humphrey Bogarti hain iradokitzaile eta berezko geratzen zitzaion hieratismo malenkoniatsu hura imitatzea, beregan patetikoa izango zelako; James Stewart baten bizkortasun nerabe horri inozoegia irizten zion, *boy-scout* baten estiloa, eta bere buruan txertaturik eramangaitza gertatuko zitzaion. Zinema klasikoa maite zuen, batez ere, nahiz eta, gaur egunekoen artean, denbora guztia keinu gehiegizkoak eginez zebilen ero horrenak –nola zuen izena?– irrigarriak iruditu. Baina berarentzat, John Hustonek beren aktoreei exigitzen zizkien lehen plano luze-luze horiek ziren benetan zoragarriak, nahiz eta horiek ere bere kasurako

ez balio; pertsonaia arruntegiak ziren, langileak, lapurrak... Sterling Haydenena, esaterako, oso ongi zegoen ikusteko, baina lapur bilakatutako baserritar baten piurak antzeratzea bere ahalmenetatik kanpo zegoen, guztiz.

Besteekiko tratua higuin zitzaion edo higuingarri bihurtzen joan zitzaion, poliki-poliki, nolabaiteko ahalkeak eta aldi berean nolabaiteko zentzu profilaktikoak galaraziko baliote bezala, berak inor mindu nahi ez eta beste inork bera kutsatzerik nahiko ez bailuen; funtsean, besteekin tratatu behar izatea nolabaiteko morrontza zela irizten zion, ezer onik espero ezin daitekeen lokatza. Ezinbestean egin zuen bizitza sozial apurra –azken batez, misantropo bat izanagatik gizona baitzen, eta horrenbestez, beharrak baitzituen– desgogora izandako harreman triste batzuen arrosario baten alea begitantzen zitzaion. Eta orain, bizitzak iragazki babeslerik onartzen ez duen ekintza bakarraren aurrean paratzen zuen, pertsona tartejarrien bidez bizitzera ohitutako hori. Ez zen hiltzea, ez zen *hainbeste* hiltzea, hil behar izatea –hori pentsatzen zuen B-k, behintzat–, bere presentzia fisikoa eta besteeki-

ko harreman zuzena, tarteko nolabaiteko zelofanik gabe, ezinbestez eskatuko zituzten eginbehar nekagarri asko baizik: mediku baten aurrean erantzi, mina sentitzen zuen alderdi miserablea erakutsi, eta gustu txarrekoak ziren beste egiteko mordo bat, denetan bere gorputza, beharrezkoa ez ezik, protagonista izango zela.

Medikuak esandakoa etorri zitzaion burura. Adiskidea, badakit gizon bat bezala arituko zarela desgraziaren aurrean. Gizon bat bezala. B-ri barregure etsia etorri zitzaion. Gizon bat bezala. Ez zuen ezer esan nahi, esaldi hutsala zen, puxika bat bezalakoa, orratz batekin lehertu eta barruan deus ez dagoela konturatzen garena. Puxika bat bezalakoa edo orduan pasatzen ari zen kafetera itxurako hodei hura bezalakoa, haizeak nahi erara itxuraldatzen edo are suntsitzen duen inpresio subjektibo eta aldakorra, ilauna. Gizon bat bezala.

Pertsonen gorputzek hartzen zituzten itxurek liluratzen zuten B, beraz; bazeukan halako sentiberatasun berezi bat jendeak erakusten zuen kualitate fisikoarekiko, gehienetan erdizka berezkoa eta erdizka inpostatua, ikasia, faltsua iza-

ten dena, primitibotasunetik gertuko aleetan baizik ezin baitzen topa ia inpostaziorik gabeko tesitura egiazkorik. Lilura horrek ez zuen zerikusirik inongo kanonekin, ez zuen edertasunik bilatzen, edo bai agian, baina beste modu batez; singularitatearen eta bakantasunaren edertasuna zen bilatzen zuena, nork bere gorputzarekin egiten zuen itunetik sortzen zena, bere ustez bakantasun horrek, itun horren nolakoak egiten baitzuen inoren gorputza, piura edo itxura, eder. Gorputz baten elementuen arteko dinamikak, gihar-tonuak, ahotsak, keinuerak, usainak sortzen zuten bakantasun hori, eta horren arabera baziren zuhaitzak bezalakoak ziren gizonak, edo ihi bezalako emakumeak, ahuntz-gizonak, oiloemakumeak, basurdeak, oreinak. Eta ez zuen zerikusirik sexu-grina asetu nahi izatearekin, *voyeurismo* berezi hori B-rentzat pertsonak pertzibitzeko manera baizik ez baitzen, pertsonak elkarrengandik bereizteko berezko bidea; ez, lilura hori, pertzepzio bitxi hori, sexurako baino, ahalkerako deia izaten zen, iruditzen zitzaiolako ezen, sentiberatasun-klase hori zeukatenentzat –uste baitzuen beste jende askok eduki behar

zuela berak zeukan sentiberatasun-klase horixe–, norberak salatzen zuela bere burua bi pauso luzatu orduko, zinemarako sarrera, azalpen bat edo gatzontzia eskatu orduko; eta B-ren ezinegona gero eta handiagoa zen, eiterik gabeko masa bat zelako ideia, buru barruan, handiagotu ahala; oskolik gabeko barraskilo baten antzerako zerbait baizik ez naiz, pentsatzen zuen, lika, beratz, hauskor, zaurigarri.

Oskolik gabeko barraskiloa edo kafetera, traktore, errota, izenik gabeko objektu, beharbada, are okerrago, zirru bat, unibertso ezezagun bateko gas-molekula, beste begi baten pertzepzioaren arabera imajinatutako tresna besterik ez, hodei bat, kea. B orain konturatzen zen jendeari eskainitako arretak galarazi izan ziola zeruari begiratzea, zerua begiratzen zuen lehen aldia zela, ez zekiela interpretatzen ortziaren zeinu misteriotsuetan ezkutatzen zen jakintza amaigabea. Eta hala ere, horrek berak eman zizkiola bizitzeko beharrezkoak diren adorea eta indarra, bestela, ausaz, inon aurkituko ez zituzkeenak.

Baina hodei batean zenbat euri kabitzen den, eta euri hori zeinen hotz eta zeinen anker den, hodei horren parte denak daki hobekien.

Izenik gabeko objektua, gas-molekula, hodeia. Kea, gizon bat bezala.

Non fida, han gal

Cohibas kutxak, egongelaren erditik, zalantzaren beraren paradigma zela aldarrikatzen zuen; egongelako mahaian zetzan, galdera-ikur handi bat balitz bezala. Arazoa zen tabako-dendako jabeaz fidatzerik ote zegoen jakitea.

Kutxak 25 ale, *Espléndido* deitzen direnetakoak, gordetzeko tamaina zeukan, eta bi baizik ez ziren bertatik falta. Bat berak erretakoa, bestea tabako-dendako jabeak. Beronek eman zion epaia: «Faltsuak dira».

Kutxa oparitu ziotenean, ez zuen sekula pentsatu gozamen-iturri barik, arazo bihurtuko zitzaiola. Aitzitik, ez zuen horrelako detailerik espero, eta luze eskertu zion opari-egileari. Oparia jaso eta astebetera, ordea, kutxak proiektatzen zuen galdera-ikurrak berau jasotzean sentitu poza lausotzen zuen. Debalde hartutakoak izanik, aise pentsa daiteke ez zegoela zertan kezkatu *Cohibas* horien autentikotasunari buruz, baina ez zen hain erraza.

Bera ez zen aditua, ez zuen eskarmentu handirik puruak erretzen; izan ere, hilabete gutxi batzuk baizik ez ziren pasatu zigarrotxotik purura igarotzeko hautua egin zuenetik. Amets batek eraginda egin ere. Amets bat, amesgaiztoa izatera iristen ez zena, zeinean kontsultan zegoela, jaun medikuak esaten baitzion eztarriko minbizia zeukala. Berez, amesgaiztotzat jotzeko besteko arrazoi ez bazen, gainerakoak bezala arraroa, berezia eta bitxia zen amets hartan ondoren medikuak esaten ziola hamalauko kiniela bat asmatuko zuela, eta lasai egoteko, nahikoa denbora edukiko zuela sariko dirutza gastatzeko, minbiziaz kezkatzen hasi baino lehen.

Eztarriko minbiziaz zenaz bezainbatean, ez zitzaion arraroa iruditu: osaba propio bat halakoa eduki eta berrogeita hamar bete gabe hil zen; genetika ez zegoen, hortaz, bere alde. Kinielak igandero-igandero egiten zituenez, asmatzea litekeena zen (bestela zergatik egingo zituen, bada?). Dirua gastatzeko adina denbora izateari buruz, hori ere sinesgarri iruditzen zitzaion, bestela ere poltsikoak urratuta zituela

iruditzen zitzaion askotan, bizimoduak zenbat eta nola egin duen gora aipatu gabe.

Beraz, inori ezer esan ez bazion ere, are, bere buruari ere aitortzen ez zion arren, ametsa beteko zelako susmo lauso eta gorpuztugabe batek–erlatiboki gazte hilko zelako segurantziak, eta hil baino lehen denbora-tarte zehaztugabe baina atsegina pasako zelako fedeak– lagundurik bizi, ibili, mugitzen zen, betetzen zituen bere egitekoak. «Erlatiboki gazte» hil behar horrek, gainera, adin zehatzik finkatzen ez zuenez, eta hainbat urtetako tartea ematen zuenez –menturaz kinielak aberasturik biziko zen tarte hori bera–, osasunaren alde zerbait egin behar zelako ustean tinkotu zen. Eztarrian sentitzen hasia zen laztura berri batek –egiazkoa edo irudimenezkoa– gehi inoiz ukatu ez zuen ukitu hipokondriako batek egin zuten gainerakoa: ez zion erretzeari utziko, baina puruak erretzen hasiko zen, mundu guztiak dakienez, ez direlako hain kaltegarriak.

Finean bere patua justua iruditu zitzaion, eta heriotza hurbil baten iragarpena izango zen hamalauko kiniela noiz asmatuko jarri zen bizitzen,

puruak erreaz. Gero eta puru handiagoak erreaz, egia esan.

Auzoan ere berria zen, eta puruak etxetik gertuko tabako-dendan erosten zituen. Tabako-dendako jabea ere –hura kasualitatea!– puruzalea zen; tira, puruzalea bakarrik ez. Aditua zen. Bazuen dendan gela berezi bat, *cava* bat, hezetasun eta tenperatura-baldintza finkoak zeuzkana, puruak bere onenean kontserbatzeko. Dendaria hasi zitzaion artea erakusten, ordura arte ezezagun zitzaion makina bat konturen berri emanez: kanpo aldean berezko tabako-geruza duten eta ez duten puruen arteko desberdintasuna, eskuz egindako puruen ezaugarriak; tabakorik onena izaten zen kokapen geografikoak –nahiz dendaria habanozale amorratua izan, esaten zuenez–, puru erretzaile batek eduki behar dituen tresna sofistikatuak –purua moztekoa, supizteko egokiak, larruzko toxak... –; Kubako purugintzan erabiltzen ziren termino berezienak –*conseguidor*, puruak lortzeaz arduratzen dena, *torcedor*, fabriketako esku-langilea–, markarik onenak zeintzuk ziren... Zer esanik ez, dendariak bere gisako ikastaro iniziatiko horretako

atal bat eskaintzen zion bakoitzean, bezeroak hala edo nola bukatzen zuen erituaren kostua bere eginez, zela *Upmann* edo *Davidoff* lodi bat, zela aldizkari espezializatu bat erosiz.

Eta horietan zegoela lagun batek *Cohibas* kutxa oparitu zion. Bere dendariak hasieratik finkatu baitzuen puru on baten behar bezalako kontserbazioaren garrantzia, pentsatu zuen lehen gauza hauxe izan zen: kutxa tabako-dendara eramatea, dendariak bere gela berezian gorde zezan. Halakoak egunero erretzen ez zituenez, okasio berezietan pasatuko zen bere altxorra poliki-poliki erretiratzera.

Halaxe egin zuen, lotsa apur bat ezin ezkutatuz; izan ere, tabako-dendako jabeen adiskidantza moduko hasi berri hartan interpretazio oker askotarako bidea eman zezakeen eskaintzak: ordura arte erakutsitako ezjakintasuna negozioak proposatu nahi zizkion tratulari badaezpadako baten amarrua baizik ez zela pentsa zezakeen, esaterako, edo zerbait okerrago agian. Baina tabako-dendakoak, azalpenak entzun eta gero, ez zuen tratua gaizki hartu. Tori, esan zion orduan gure gizonak, eskerrona erakutsiz, erre ezazu

bat behingoz, eta esango didazu zer iruditzen zaizun. Eta horren ondoren etorri zen epaia: faltsuak direla esango nuke.

Behin baizik ez zuen ordura arte *Espléndido* horietako bat dastatu, ezkondu baino lehen despedidan Kuban egon zen lagun baten ezkontzan, hain zuzen, eta ezkontzaren giro onean eta giro onari lagun egiten dion edari ugarien artean joan zelako izan, edo benetan puru haren kalitatea bikaina zelako izan, gauza zen egun hartan erre zuen *Espléndido* hura pasatu zela bere mitologia partikularrera puruetan izaten ahal den gailurraren moduan, *Ducados* bat balitz bezain suelto erre zuelako larderiazko txokor erraldoia.

Oparitu berri zioten kutxatik pipatu zuena, ordea, ez zitzaion hain ona iruditu. Maiz itzali zitzaion, eta azkenerako gainez egin zion. Faltsua ote zen? Ordurako entzuna zuen maiz Kubatik ekartzen zituzten *Cohibas* markakoak usu imitazioak izaten zirela. Zuri gertatzen zaizuna da –esan zion txokorrak erretzen abila zen beste adiskide batek– ez duzula purua behar bezala pizten. Zeuen zigarrotxoekin pozoitutako zu bezalako *señoritek* uste dutenaz beste aldera, puru

on bat ezin daiteke piztu *Winston* bat balitz bezala. Purua lasai piztu eta erretzekoa da, purua erretzeak ez du zerikusirik bizio bat asetzeko maniobra mekaniko eta konpultsiboarekin. Eta hau esanik, puruari kosk txikia egiten zion ipurdian, tabako malgu eta freskoaren zirkulu bat erauziz; ondoren txokorra maitekiro paratzen zuen hatz-mamien gainean, eta ohikoa baino hiru aldiz luzeagoa zen pospolo bat piztuz, errotazio mugimendu txikiak eragiten zizkion suaren aurrean, pazientziaz eta maitasunaz, kanpo aldeko koroa txingarrez bete zedin, pospolo luze horietako bat, bi, hiru edo behar zirenak erabiliz, puruaren koroa, osorik, gori ikusten zen arte. Ikusten? esaten zuen orduan. Gero pospoloaren garra aplikatzen zion puruaren ahoaren erdiko tabakoari, emeki-emeki, txokor bat pizten ibili gabe, txekor bat erretzen ariko bailitzan. Bitartean gure gizonak bere adiskidearen mugimendu guztiak begiratzen zituen, apur bat bekaitzez, erakusten zuten sentsualitate horrek liluraturik, eta apur bat erdeinuz, iruditzen zitzaiolako bere adiskide puruzalea beti harro samarra izan zela, eta mugimenduak eta prekauzioak areagotzen

ari zela berari lezio bat ematea beste helbururik ez zuen patxada batez. Puruaren punta zentimetro bateko errautsez koroaturik ikusten zelarik, adiskideak purua ahoan sartzen zuen, sututa zegoen aldetik, baina, eta kanporantz putz egiten. Purua bere luzera osoan zeharkatuz, ke-hari bat ateratzen zen atzeko aldetik; txokorrak ongi tiratzen zuela seinale. Gehiegizko, gustu txarreko eta alferrekoa iruditzen zitzaion erakustaldia gure gizonari. Bestalde, ziur zen ezen, bera saiatuz gero, mihia erreko zuela. Ikusten? esaten zuen besteak. Ordu pare baterako purua daukat nik hemen. Eta zure puruak... Zer nahi duzu, probatu gabe ezin ganorazko ezer esan.

Apur bat gogoz kontra izanik ere, bigarren mediku-iritziaren bila doanaren antzera, gure gizona tabako-dendara joan zen eta beste bi *Espléndido* erreskatatu zituen bere kutxatik, erabaki baitzuen gauzak zeuden bezala egonda, ongi etorriko litzaiokeela bere lagun puruzale harroputzari puru bat ematea. Berak bigarrena erreko zuen, ia lehenengo inpresioa berresten zen edo ez ikusteko.

Izan ere, ez zekien zer pentsatu. Oparia egin zion lagunari deitu zion, bere zalantzak kontatzeko. Ez da ez dizudala eskertzen, ez da puruak txarrak direla, baina... baina... –ziztrin eta nazkagarri sentitu zen, opari bat jaso eta oraindik kontuak eskatzeko kopeta erakusten zuelako adiskidearen aurrean, baina beren arteko adiskidetasunak froga horri eutsiko ziolakoan– baina nola lortu zenituen *Cohibas* horiek?

Adiskideak azaldu zion bere ezagun baten anaiak Kubako enbaxadan lan egiten zuela, eta enbaxadako pertsonala arduratu zela puruak lortzeaz, eta enbaxada puruez hornitu ohi zuen betiko *conseguidor* berak lortu zituela. Alegia, konfiantza osokoak zirela, eta ez zuela batere dudarik egiten autentikotasunaz.

Azalpen honek ez zuen gure gizona lasaitu; izan ere, «non fida, han gal» dioenaren esaerari fede emanez gero, konfiantzazko kate luzeegia eratzen zen kasu hartan ezer onerako: bera adiskideaz fio behar zen, adiskidea beste adiskideaz, hau bere anaiaz, anaia *conseguidor* delakoaz... eta *conseguidor* delakotik aurrera, auskalo noraino luzatuko zen konfiantza-katea, eta nolako-

ak izango ziren hor sartuko ziren pertsonaiak. Edozein katebegitan eten zitekeen kristal hauskorra zen konfiantza. Horrek eta tabako-dendako jabearen iritziak purua faltsua zela uste izatera eramaten zuten. Baina, arraioa!, gauza zen bigarren purua lehena baino hobea iruditu zitzaiola.

Puru hauek ez dira Vuelta Abajoko fabrikatik atera, faltsuak dira, esan zion tabako saltzaileak, egin zion hurrengo bisitan. Frogak dauzkat. Hau esanik, gure gizonaren kutxa ireki zuen mahaiaren gainean, eta ondoren dendaren atzeko aldean desagertu zen, errekaitu-arsenal batez horniturik agertzeko berriz: kutxa, liburu, lupa, *palmer* itxurako metalezko tresna txiki bat... Zure kasuaz arduratu naiz, jakinarazi zion tabako saltzaileak. Bon, lehenik eta behin kanpo aldeko tabako-geruza daukagu, esan zuen. Gure gizonak eramandako puru-kutxa zabaldu zuen, eta ondoan beste bat ipini eta zabaldu. Hauek autentikoak dira, inolako zalantzarik gabe, *Cohibas* marka banatzen duen saltzaile ofizialak ekarriak. Ikusten?

Tira, ez zitzaion hain garbi iruditu, baina baliteke bereen kanpoko tabako geruza amiñi bat argiagoa izatea.

Gero usainarena daukagu, segitu zuen dendariak, kutxa bakoitzetik puru bana ateraz eta sudurrera hurbilduz, puruok ia sudurzulotik sartzeraino. Zer iruditzen? galdetu zion, puruak emanez eta eragiketa errepika zezan eskatuz. Gure gizonak puruak usaindu zituen baina sudurzulotik sartzen ausartu gabe. Garbi dago, ezta? Berari ez zitzaion hain argi, baina ez zuen adostasun faltarik adierazi.

Gehiago dago, gainera, esan zuen puruen eraztunak, bitolak, lupaz begiratuz eta ekarritako liburuko erretratuetan zeuden bitolekin alderatuz. Gure gizonak aitortu behar izan zuen bere puruen bitoletako koloretan zerbait arraro bazegoela: lupa erabiliz ondo ikusten zen hori-laranja kolorea apur bat mugituta zegoela, txuriari zegokion aldean sartzen zela, milimetro-hamarren batzuk, bederen, jaten zizkiola. Hori gutxi balitz, *palmer* itxurako tresna txikiarekin puruak neurtu zituen, kutxa batekoak eta bestekoak; neurketako emaitza zera izan zen, gure gizonari oparitu-

tako puruak, batez beste, milimetro bat laburragoak zirela besteak baino, besteek *Cohibas* markako katalogo guztietan agertzen ziren ehun eta hirurogeita hamapiko milimetroak zituztela. Eta inportanteena: kutxa autentiko bakoitzaren atzeko aldean bazegoen zigilu bat, fabrikatik zer egunetan atera ziren adierazten zuena. Bere kutxak ez zeukan horrelakorik.

Faltsuak dira, inondik ere. Gure gizonari menderatu ezinezko umiliazio-sentimendua, esplikagaitza, igo zitzaion buruko ileen erroetaraino. Ezin zen puruak oparitu zizkion adiskidearekin haserretu, ezin zen tabako saltzailearekin haserretu, baina hala ere umiliatua sentitzen zen. Bizitzaz deus ez zekien ergel bat bezala geratu zela sentitzen zuen, inozo ezjakin bat bezala, puru faltsuen kutxa bat altxorra bailitzan hartuta bere babokeria ahalkerik gabe erakusten ari zen pailazoa. Amorruaren leungarri, protesta bat egiten saiatu zen: Enbaxadatik ekarri dizkidatela ziurtatu didate. Ez zen xehetasunean sartu, are eta irrigarriago geratzeko beldurrez. Bere hitzek, ordea, uste ez zuten eragina eduki zuten saltzailearengan: joño, diplomazi balixaren bidez iritsi

badira... Gure gizonak galdutako kemen pittin bat berreskuratu zuen; berak ez zuen diplomazi balixarik aipatu, baina besteak hitz horiek erabiltzeak nolabaiteko nagusitasun zantzuez janzten zuenez, ez zuen bere okerretik aterako. Ongi begiratuta, puruak diplomazi balixaren bidez iritsiak zirela esaten ahal zen, ia. Beste bi puru eskatu zituen: berak hirugarrena erreko zuen, eta saltzaileari emango zion bestea, bigarren erreal-di baten bidez epaia aldatzeko aukera eman nahiko balio bezala.

Bitartean lagun puruzalearen iritzia jakiteko modua eduki zuen:

– Kojonudoa.

Ez zuen esan «oso ona», «bikaina», «ezin hobea», «zoragarria», «gorringo bikoa» edo horrelakorik, ez.

– Puru horiek kojonudo zaudek.

Iritzi biribila adituaren asetasun itxura konfundigaitz eta disimulatuezin batez zetorren bermatua. Bistakoa zen esan gabeko mezua: hik ez duk horrelako pururik merezi, ez dakialako erretzen, ez dakialako gozatzen. Nire esku baleude, ordea... Agian adiskide puruzalearen eraginez,

hirugarrena, erre zuenean, ez zitzaion hain txarra iruditu.

Egia izango zen? Egia izango zen bera ez zela puru haien mailako pipatzailea? Baina orduan, hala izatera, aferak beste jite bat hartzen zuen. Ez horratio hobea, ez horixe. Zeren orduan beste ideia bat bururatu zitzaion, alegia, gauzak ordura arte pentsatutakoaz oso bestelakoak izaten ahal zirela. Nola ez zen lehenago konturatu? Nola egon zen hura ez ikusteko bezain itsu? Puruak autentikoak izango ziren, noski.

Tabako-dendara egin zuen hurrengo bisitan, bataio bat zela-eta beste bi pururen bila joan zenean, uste berri hartan tinkoagotu zen. Halabeharrez, joan den astean *Cohibas* markako saltzaile ofiziala pasatu da dendatik, jakinarazi zion dendariak. Zureak erakutsi dizkiot. Goitik eta behetik aztertu ditu: ukitu, usaindu, haztatu, pisatu egin ditu. Eta bere azken erabakia da –eta kontuz gero, bera egiazko aditua da!– faltsu autentikoak direla, bukatu zuen dendariak, garaileairez. Et, et... Faltsu autentikoak!? Hori nola jaten da? Orduan azalpen luze bat eman zion, zeinaren arabera *Cohibas* fabrikako *torcedoreek*

ba omen baitute egunean puru bat berentzat gorde eta fabrikatik ateratzeko baimena. Noski, esaten zuen tabako-dendakoak, haietariko batzuek ateratzen duten purua erretzen dute, baina dauden krisi egoeran egonda, gero eta gehiago dira pikareskara jotzen dutenak, hilabetean kutxa bat osatu eta turistei saltzen dizkietenak. Hortaz, puru autentikoak dira, *Cohibas* fabrikan eta bertako berme guztiekin egindakoak; ordea, prestatzen dizkieten eraztunak eta kutxak faltsuak dira, halamoduz egindakoak. Eta, zer esanik ez dago, behin fabrikatik modu horretan aterata, pairatu dituzten kontserbazio-baldintzak ez daude inondik inora ere kontrolpean, horra desberdintasuna.

Baina azken burutazioa eduki zuenetik, dendariaren inongo azalpenak ez zuen gure gizona bere uste berri eta tinkotik desbideratuko. Nola ez zen lehenago konturatu? Puruak autentikoak ziren, noski. Dendari azkarrak aise asmatu zuen azpitik nola jokatu: bakoitzak hogei euro baino gehiago balio zuelarik, 600 euro aterako zuen kutxa jatetxe bati edo beste bezero bati salduta, eta trukean faltsuak sakatuko zizkion berari,

agian hiru edo lau eurotan lortuko zituenak. Are, gauza gehiago korapilatu aldera litekeena zen ezen dendariak, gure gizonak beste inoren iritzia eskatuko zuela susmaturik, ordura arte autentikoak eta faltsuak nahasian eman izana, gerta zedin –segurutik ordurako gertatu bezala– iritziak kontrajarriak izan zitezen, mesfidantzak eta ustekeriak ehundutako sareak egia ezkuta zezan, berak bere jokoa lasaitasun osoz egin ahal izan zezan. Operazioarekin 500 edo 600 euro inguru, garbi, aterako zituen. Ez zen diru askorik, baina ez zegoen gehiago eskatzerik horren ahalegin txikiaren truke.

Berak erakutsiko zizkion erakustekoak tabako saltzaile azkar usteko hari.

Izeba Matilde

Ipuin hau bera nik baino lehenago eta hagitzez ere hobeki idatzi duten ehunka hegoamerikarrei. Eta Stevensoni, jakina.

Izeba Matilde oso makal zebilen osasunez. Eri zegoen, oso gaizki, benetan. Bazuen nerbioetako gaitz alu bat, gorputza poliki-poliki egoera mixerableenera eramaten duen horietakoa; zientzia irrigarri uzten plazer aurkitzen zuen gaitza zen, medikuntzari ixkin egiten ziona, neurologorik onena arlote baten pare lagatzen zuena. Horrelakoetan medikuak harritu bezala egiten dira beren ezjakintasunarekin, lehenik gaixoaren esperantza pizten saiatzen dira, baina astiro-astiro isildu egiten dira eta azkenik ez dira ezer; apalategi bete botika eta gutxienez lau lerro hartzen dituen sindromearen izena baino ez dira geratzen afera hartan izan duten parte hartzearen oroigarri. Izeba Matildek gaitz sendaezina zuen, eta hainbeste urteren agoniaren espektatiba baino ez zitzaion geratzen.

Eritasun hauek oso mikatzak dira. Benetan penosoak, baina zitalak, hitzetan nekez laburbil daitekeen zitalkeriaz beteak; gaixoarentzat, batez ere –esan beharrik ere ez zegoen–, baina zitalak, baita ere, gaixoaren inguru afektiboa osatzen dutenentzat. Gaia ezagutzen duenak aise ulertuko nau. Hurrenez hurreneko hondamen fisiko erabatekoa, zeharoko suntsipena nola bizitzen den, gaixoak berak baizik ez lezake esan. Itsuenak ikusten du, baina, trago ezinago mingotsa behar duela izan, larrietan larria. Esperantzaren ontzia guztiz hutsik, guztiz ihar, siku, geratzen denean espiriturik sendoenak ere abailtzen dira, lehergailuak airetik zartarazitako eraikuntza bezala; higatzen dira hareazko gazteluei olatu bat, eta beste bat, eta hirugarren bat gainetik pasatzen zaienean bezala, deus geratzen ez den arte. Hondamen fisikoak egunero egiten du urrats bat aurrera; guztiahalduna da eta ez du inoiz ere hutsik egiten. Ez da inondik ikusten, ez da zer ukigarririk, baina hor dago itsasoa bezain infinitu, hondogabe eta larderiatsu, uholde bat bezain gupidagabe, eta uholdeak dena aurretik eramaten duen bezala, halaxe era-

maten du pertsonak mendeetan zehar asmatu ahal izan duen federik sendoena ere. Elbarritasunak haginkada txikietan gorputz zorigaiztoko hori ezintzen duen heinean, eriaren inguruko pertsonak bihurtzen dira makulu, esku, beso, hanka, begi, mihi, belarri. Prozesuak aurrera ahala, halako harreman deskribaezin eta partikularra garatzen da erizainaren eta hari urratu bilakatutako naturaleza horren artean. Ez dut uste bi kasu berdin izango direnik mundu osoan, mundu osoan berdin-berdin diren bi harreman ez diren ber, baina antzekotasunak badirateke: borondate on gorenak eta maitasunik beroenak ez dute sekula gaixoaren gaitasun galduaren laurdena ere balio, ezin dute inola ere berdindu patu ustelak gaixoarekin hartu duen zorra. Egunak pasatzen dira. Gaixoa herrazko oskol batean ixten doa eta dastarazi nahi izaten die mingostasuna bere esku bihurtutako ahaideei edo adiskideei. Hortaz, erizainaren gaixoarekiko arretek oso ordain urria ohi dute, eta laguntzaile gizajoa ere etsipenak jota geratu ohi da. Beste hilabete bat pasatu da, eta elkarrekiko ziztrinkeriak areagotzen dira. Tentsioa sortzen da, eta etxetik kan-

poko batek sekula ulertu ezin izango lituzkeen errieta absurduetan lehertzen da. Gero damuak datoz, maitasunaren eremuko mugetako besarkadak, eta ezinbestez, negarra. Urtebete joan da eta goiz batez zikloa hasten da berriro, eta mixeriaren tanta aukerakoenak denboraren alanbikean destilaturik, eramanaren ontzia betetzen hasten da. Bat, zikloaren gorabehera guztian zehar, aingerua da egun batez, deabrua hurrengoan, xamurtasunaren lore goizean eta ankerkeriaren beraren haragiztatzea gauean. Pentsamendurik ilunenak pentsatzen ditu batek, denekin bukatu nahi du halako batean, eta sekula buka ez dadin otoitz egiten du hurrengoan. Finean, konturatzen zara eritasun horrek, hasieran kutsakorra uste ez zenuena, nolabait kutsatu egin zaituela. Batbedera ere, aldez edo moldez, gaixo dagoela. Gu baino dezente pragmatikoago, gure zaharrek honela esaten zuten: eri luzea, etxekoak aspertu eta kanpokoak ahaztu.

Guk –alegia, anai-arrebok– etxekotasun handia genuen izeba Matilderekin, amaren ahizpa izanik, berak hartu baikintuen gure gurasoek hegazkin-istripua eduki eta umezurtz geratu gine-

nean. Hori gertatu eta hurrengo urtean unibertsitatera joan nintzen, beste hiri batera, eta hori zela-eta urtebete eskas baizik ez nuen egin izebaren etxean; baina nire sei anai-arrebak –txikiagoak denak, ni nagusia naizenez– izebaren etxean hazi ziren. Matilde gaixotu zenean, denoi iruditu zitzaigun justua eta beharrezkoa zerbait egitea izebaren alde, berak gure alde hainbeste eta hainbeste egin zuenez. Izeba alarguna zen aspaldi, eta ez zuen familiarik eduki.

Larunbat horretan nire txanda zen izeba Matilderen etxean, eta bazkalostean, goizeko egitekoak buruturik, lo kuluxka bat egitera erretiratu nintzen. Ostiral gauean berandu arte egona nintzen lagun batzuekin afaltzen eta solasean, trago batzuk edaten genituela, eta tragoek berandu arte iraun zuten, logale nengoen, eta nekatuta; izeba Matilde, ordurako, azkenetan zegoen, eta ez zen ezer egiteko gauza; ezin zuen hitz egin, ezin zen mugitu, jaten ere tutu baten bidez eman behar zitzaion, eta, kasik, gero eta maizago matrailetik behera egiten zioten negar-tantek baizik ez ziguten erakusten bizirik zegoela. Gogor egin behar izaten zen lan, izeba ez ezik

etxea ere gobernatzen. Hala, ohatzean etzan nintzen eta berehala lo nengoen.

Lo egin bitartean aurreko gaueko solasak etorri zitzaizkidan burura, amets edo erdi-ametsen modura. Izeba Matildez hitz egin nuen adiskideekin. Eta hortik abiaturik, zahartzaroaren ankerraz eta, nola ez, eutanasiaz. Funtsean, eta xehetasunak gorabehera, denok geunden konforme eutanasia arautu beharraz. Baina bagenekien, baita ere, hori urrun zegoela oraingoz, eta orduan norbaitek planteatu zuen ea gutariko inork bihotzik edukiko ote zuen bizirik dagoen –nahi den muga eta oztopo guztiekin, baina bizirik– eta maite den pertsona bati bizia bere eskuz kentzeko. Gogoan daukat nire erantzuna ezetz izan zela; teorian konforme egonik ere, are hori egiteko gai litzatekeena miretsirik ere, nik ezingo nuela. Edo agian bai, baina orduan, ez erabaki hotz, humanitario, kalkulatu eta errukitsu baten ondorioz, onetik aterako ninduen grina hiltzaile, pasio negatibo baten menpe baizik. Denok irri egin genuen, nik barne, inork nolabaiteko Norman Bates bat eginda irudikatu nindue-nean.

Egur puska bat bainintzen lo egin eta gero, anai-arrebena, beren bikoteena edo edozein lehengusurena ez zen beste ahots batek esnatu ninduen. Buruko mina neukan eta aho-sabaia guztiz siku. Erlojuari begiratu eta uste baino askoz gehiago lo egin nuela konturatu nintzen. Horrek guztiak halako sentsazio ez ohikoa ekarri zidan gogora. Esnatu ninduen gizonezkoaren ahotsa entzun nuen berriro. Oso tarteka baizik ez zuen hitz egiten, ozen, sakon, lutoki, etenaldiak eginez esaldien artean, arrosarioa, letaniak edo beste edozein otoitz, erritual bat errezitatzean plazera kausituko bailuen. Begietako makarrak kentzen nituelarik, ezagutzen nituen ahotsen katalogoarekin alderatu nuen ahots hori, norena zitekeen atzeman nahian. Osaba Luis? Servando, nire anaia? Horacio, auzokoa? Ez nintzen ahotsa norena zen asmatzera iristen, eta hala ere, ezaguna zitzaidan, eta ezaguna ere oso modu bitxian, tonua edo doinua baino areago, ahotsak biltzen zituen irrika intimoenak atzemango banizkio bezala. Ohetik mugitu gabe gelditu nintzen minutu batzuk, lo sakonaren lorratzak kendu eta bisiten aurrean gizalegeak eska-

tzen duen planta berreskuratu nahiz. Bistan zen laster jaiki behar nuela eta aldameneko gelan sartuko nintzela, ordura arte bakarrizketa monokordea zena tertulia bihurtzeko. Nahi nuen jakin, ordea, ezezaguna nor zen gelara baino lehen, piura, taxu eta solas egokiak zeintzuk izango ziren asmatzeko, zer espero nezakeen kalkulatzeko. Tarte horretan ahotsa entzun nuen beste bizpahiru aldiz, eta guztiz familiarra izanagatik, ezin izan nuen asmatu nor zen bere jabea; agian familiartasun hori bera zela kausa, zergatik ez nekiela (edo bai: *familiarra* izanagatik *ezezaguna* zelako), ahots horrek areagotu egiten zuen esnatu nintzenetik nire baitan sentitzen nuen sentimendu apartekoa, ohi ez bezalakoa, estrainioa, eta hortaz, apur bat beldurgarria ere. Edonola, jakinmina edozein beldur baino ernagarriagoa egin zitzaidan, eta laster nengoen aldameneko gelara sartzeko gertu. Zer nolako agurra edo sarrera-hitzak esan nitzakeen pentsatu nuen, baina horiek etorri berriaren araberakoak izango baitziren, halabeharrez, intrigaturik abiatu nintzen, urdailean xinaurriak zebilzkidala.

Sartu eta lehenengo inpresioa zaplaztekoa bezalakoa izan zen. Ezezagunak nire traje grisaren oso antzekoa zen beste bat zeraman. Laster konturatu nintzen nire zetazko gorbata urdina zeukala paparrean zintzilik; ez hori bakarrik, hurbildu ahala ikusi ahal izan nuen gorbataren alfilerra nirea bezalakoa zela, zilarrezko izurde bat, izeba Matildek berak oparitutakoa, aspaldi zela; eta ezezagunarengandik bizpahiru urratsetara baino ez nengoela ikusi nuen, harriduraren harriduraz ikusi ere, eskumuturrean zeukan erlojua ere aitarena izandako Longines zaharra zela. Horrek guztiz asaldatu ninduen, baina protesta oihu bat egitera deliberatu nintzenean, are txunditua-go, ikusi ahal izan nuen erlojua nirea bezalakoa zen bezala, ezezagunaren begiak, ahoa, sudurra eta ilea, aurpegia, burua eta soina ere, nireak bezalakoak zirela. Eta finean, ohean nengoela hain ezagun egin zitzaidan ahotsa ere nirea zela konprenitu ahal izan nuen.

Orduan konturatu naiz, sekula deskribatu ezingo dudan izu-ikararekin, izeba Matilderen ondoan eseririk dagoen ezezaguna ni naizela, eta nire senak okaztagarrienetik eta deitoraga-

rrienetik duena azaleratzen zaidanean izaten dudan aieru eta begirakunearekin ari natzaiola begiratzen, ozar eta lotsagabe. Konturatu naiz, halaber, inor ez dela konturatu gelan sartu naizela. Izeba Matildek begi galduez entzuten ditu nire tokia hartu duen faltsario horren letaniak, zeinak aldi berean keinuak egiten baitizkit, euli bat oniltzen ariko balitz bezala, ni uxatzeko, lekutzeko. Eta gero edabe ezezagun bat sartzen du, injekzioaz, Matilde gaixoak urdailetik zintzilik daukan tutu laburretik.

Ukabilak irmo itxirik oldartu natzaio ni naizen ezezagun hiltzaile horri, kolerak azpegiak gorriturik, baina nire ukabilkadak airean desegiten dira faltsarioa ukitzera sekula iritsi gabe.

Errealitate aldakorraren ezpalak

Bizitza zurrunbilo bat bilakatu da, pentsatzen zuen Goiok berekiko, erle-saldo baten burrunba itzalia baina etengabea, zoratzeko modukoa, ezerk ez zuen lehengo kolorea eta distira, lehengo ertz definitua eta forma ezaguna, nabarra-urdina nagusitzen zen nonahi, difuminatuak eta zirriborro lausoak, fokutik kanpoko argazkia bezalakoa zen dena, Armanik esan ohi zien bezala sekzioaren bileretan, garai berri hauen ezaugarri nagusia aldakortasuna da, potroak gero, sindikalista bati Armani deitzea, fabrikako sugegorriek ezarritako izengaiztoa zen, maltzurki, gero sekzioko kideek ere onartua, maltzurki eta maiteki aldi berean, Armani ez zen horregatik asaldatzen, ez horixe, ez zen etorri berria, garai haien aldakortasunaren beraren paradigma irizten zion izengoitiari, egokia beraz, eta doike, pena bakarra berari paratu izana edukiko zuen, onartu beharra zegoen besteri esateko oso egokia zela,

norberari esanez gero azkura pixka bat sortzen zuen, baina liberatua zenetik asko zaintzen zuen itxura, goiko aginduak dituk, justifikatzen zuen bere burua, baina beste batzuek buzoarekin segitzen zuten, Goiok esaterako, gero eta burusoilagoa zen Goio, Goio bere buzo barruan sarturik –enbutiturik– agorafobia probokatzeko moduko buruko soilunearekin, hestebete zurbil eta ezezagun bat bailitzan, edo okerrago, zakil punta laru bat bezala, gauzak aldatuko ziren noski baina ez Goiorentzat, soilunearen tamaina gorabehera, errealitate aldakorrarena hitz eginda zeukaten bileretan, behin baino gehiagotan, Armanik esaten zuen ez dela lan ideologikoa alde batera utzi behar, besteak konforme zeuden, lehen errealitatearen araberako kontsigna garbiak genituen, esaterako produkzio bitartekoen jabetza langileriaren eskuetara pasatu behar da, orain ezinezkoa da horrelako kontsignarik, teknologia, teknologia, errepikatzen zuen Armanik, teknologia da langileen eskuetara pasatu beharko zena, menderatu beharko zena, baina nondik dator teknologia, nork kontrolatzen du teknologia, pentsa une batez –eta garbi gera bedi,

arren, hipotesi zoro bat baizik ez dela–, onenean ere, IBM edo dena delakoa armaz hartzen dugula, eta bertan dauden handi-mandi guztiak akabatzen ditugula, gero nork jarriko zuen ordenagailua martxan, nork jakingo zuen zer tekla sakatu behar zen, zuk, Goio? –eta Goiok ez zuen buruaz ezetz esateko lanik ere hartzen, garbi bai garbi baitzen galdera erretorikoa zela–, prestakuntza, prestakuntza, prestakuntza da beharrezkoa alternatiba bat eratzen dugun bitartean, eratuko dugun egunerako, kostako da baina, hori ez dago ukatzerik, errealitatea konplexua eta aldakorra delako, horrexegatik beragatik hain zuzen, eta gero fabrikako lankideen eta sekzioko sugegorrien komentarioak, begira urliaren semea, lau urte baizik ez ditik eta lehengoan, nagusi izatean zer izan nahi duen galdetu eta ez al zian erantzun, ba, Hipertrolako ingeniari aurrez jubilatua soldataren ehuneko laurogeita hamarrarekin, Hi-per-tro-la-ko in-ge-nia-ri au-rrez ju-bi-la-tua sol-da-ta-ren ehu-ne-ko la-ro-gei-ta ha-ma-rra-re-kin, dena braust, baina silabak ongi markatuz eta silaba bakar batean zalantzarik edo tostorrik egin gabe, hori ez duk galduko, bizi-bizi zetorrek,

edo sandiaren aita hil berriarena, aita ona izan zuan, eta norbaitek inozoki galdetu, zer, seme-alabekin mintzatzen zuan, seme-alaben edukazioaz arduratzen zuan, kariñosoa zuan, edo zer, eta erantzuna labana kolpe bat bezala, ez, motel, ez, azkar hil zuan eta diru pixka bat utzi zian, dena zetorren ondo egun kloniko horiek iragateko, katean tapizeria jarri berriari errepasoa egiten, jostura bat tokiz kanpo han eta olio-orban bat hemen, jardunaldi bakoitzean horrenbeste kotxe eta azkar ibili beharra orain gaueko txandan zebilen taldeak ehuneko hamarra ateratzen zielako produkzioan, Goiok ez zuen ulertzen, zertarako hainbeste presa gero handik sei hilabetera, merkatuaren egoera zela-eta, produkzioa mantsotu behar bazen eta fabrika hainbeste egunetan ixten bazuten, fabrika itxita zegoeneko egun libreak egun-poltsarako, martxa hartan jubilazio egunean bi lan-urteko zorra edukiko zuen enpresarekin, Armani, esplikatuzak hau, bizitza guztia lanean eta orain hauek zatozek dirua zor diedala, potroak, gero, bai, bazakiat denbora aldakorrak direla, baina ez nian uste sekula hainbeste aldatuko zirenik, lan egi-

teagatik ordaindu beharra, gaur jan ditudan lentejak datorren hilean pagatuko ditiat, zorretan jan ditiat, potroak gero, eta egunak joan egunak etorri, denak igual-igualak, elkarrengandik bereizezinak, lenteja platerkadako bi ale bezainbeste, sikiera produkzio bitartekoak aitzurra eta pala ez diat esango baina hondeamakina eta barrenoa balira, horiek egitate kontrolagarriak zituan, ukigarriak, hurbilak, fisikoak, nire kapazitateentzako dimentsio ulergarrikoak, humanoak, baina orain dena egon zagok, baina sekula egon gabe, deabru ikusezin batek mugitzen ditik hariak hiperespazioko tokiren batetik, nonbait, mutilak, izorratu gaitiztek, esan ohi zuen Goiok, gaur egun dena duk birtuala, nire buruko soila izan ezik, igual, ez zaitez horregatik kezkatu, esaten zuen Armanik, ilea ugaritzeko genea aurkitu ditek saguetan, eta produktu bat atera ditek, funtzionatzen omen dik, baina ez hadi kezkatu, orain serio esaten diat, eta batez ere, ez hadi kexatu, sekula ez gaituk gaur den egunean bezala bizi, begiratu hire inguruan, Goio, noiz eduki ditiztek langileek horrelako kotxeak, noiz bidali ditiztek seme-alabak unibertsitatera, noiz eduki

ditek bigarren etxebizitza, noiz jokatu burtsan, noiz inbertitu, Armanik hori esaten zuenean Goiori bihotza jausten zitzaion lurrera, iruditzen zitzaiolako bere semeak arrazoi zeukala, bere semeak ezertarako balio ez zuen zahar bat zela uste zuelako, izan ere, pentsatzen zuen Goiok, ez nauk aita ona izan, azkar hil, auskalo, baina dirurik utziko ez dudalakoa segurua duk, nik ez zakiat burtsan jokatzen, orduan irri egiten zioten, ez dakiala burtsan jokatzen?, hori erraza duk, motel, ea: badakik frontoian jokatzen?, ba, orduan burtsan jokatzen ere badakik, ez zakiat ba, defenditzen zen Goio, hik nahi duana esango duk baina nik frontoiarena garbiago ikusten diat, tira, orduan ez hadi gehiago kezkatu eta jokatu frontoian, eta uztak burtsa Armanirentzat, Armanirentzat?, Goio harrituta, ez duk izango, berriz irri egiten zioten, izango ez duk ba, nondik uste duk ateratzen duela bestela, horren traje bakoitzak hire pagaren erdia balio dik, Goio, mesedez, Goio, –hau Armani zen–, Goioren begietan irakurtzen zuen mesfidantzak asaldaturik, eta nork lortu zian KPI gehi bateko igoera, zer uste duk, gauza horiek traje eder bat eramateagatik lor-

tzen direla?, ez horixe, gure indarraren kontziente direlako lortzen dituk, eta guk badakigulako nola tratatu jendilaje hori, nola erabili, nola kudeatu gure indarra, eta horrek, gaur egun, lehen ez bezalako gauzak eskatzen ditik, esaterako irudia, esaterako trajea, nire trajea hire buzoa duk, gauzak izugarri aldatu dituk, errealitatea bera aldakorra duk, lehen ere ez al genian horretaz hitz egin, trajea *atrezzoaren* parte duk, baina patronalaren aurrez aurrekoak gogorrak dituk, gogorrak gero, baita zera ere, esaten zioten orduan beste mihigaizto batzuek, baina ez al diok bibotea ikusi, Armaniren bibotea sarria zen, itxia, batek bertan edozer aurkitzea espero duen horietakoa, ez al diok bibotea ikusi, nik lehengoan bertatik langostino-azal bat ateratzen ikusi nian, horiek babokeriak dituk, Goio, patronalaren amarru zaharrak, borrokan kontsekuenteenak direnak desprestigiatzeko, horretan ez zagok aldaketarik, hori betiko errealitatea duk, hik hain ongi ezagutzen duana, Goio, hori jokabide betierekoa duk, dena den ulertzen diat, Goio, hain zuzen lehengoan hitz egin nian horretaz beste hainbat konpañerorekin, konfiantzazkoekin, ba-

dakik gauza nola dagoen gaur egun, garai berriei egokitzeko ahalegindu beharra zagok, lehen pentsaezinak irudituko litzaizkigukeen soluzioak, ez duk afiliatuentzako plan bat, ezin zaiok horrela deitu, baina sindikatuak ez dik begi txarrez ikusten, urte luzeetako afiliazioa daramaten kideentzat duk, bakarrik, eta pentsatu diagu agian hik, bakoitzak hainbeste jarri behar dik, nahi duenak, noski, nahi ez duenak ez dik jarri behar eta ez duk deus gertatzen, gero sindikatuak eramango dik irabazien ehuneko hainbeste, gainerakoa norberarentzat, joño, Armani, esaten didazun hau, ez nuen sekula pentsatuko, ez al zaizu iruditzen pixka bat, nola esango nuke, gure estilotik, gure etikatik kanpo, etika, etika, erraz esaten duk etika, esadak, Goio, hogeita hamabost urte buzoarekin ibilita, hiru txandatan, eta uste al duk hiri kontu eske etortzeko eskubidea eduki dezakeenik inork, urlia, sandia eta berendia sartu dituk, guztiz legala duk, errealitate aldakor honetan zilegi duk kapitalaren tresnak klase-ikuspegi batekin erabil ditzagun, zilegi eta logikoa, ezin gaitezkek atzean geratu, ez kezkatu etikagatik, etika-arazo faltsuengatik, ez zakiat,

zioen bere artean Goiok, niregatik igual ez nikek egingo, baina familiarengatik, andrea eta semearengatik, semeak uste dik bere aita tonto hutsa dela, ez duk diru asko baina bizi osoko aurrerakina duk, edo ia, ateratzen denarekin etxean obra egingo genikek eta semea bidaltzen ahalko genikek kanpora ingelesa ikastera, Armanik arrazoi dik, ez diat kezkatu behar horregatik, eta zer arraio, ez ditek esaten, ba, mihigaiztoek, Armanik ordu sindikalak aprobetxatzen dituela bere *swing-a* edo dena delakoa hobetzeko, orduan, zergatik ez ni... ez diat kezkatu behar horregatik, baina ez, esaten zioten beste lankide maltzur samar batzuek, ez kezkatu horregatik, kezkatu beste honengatik, eta berripaper bat erakusten zioten, non esaten baitzen planta itxi eta beste norabait eramango zutela, gaur jan dituan lentejak zorretan jan dituk, bai horixe, baina kreditua bukatu zaik, ez zagok lenteja gehiagorik, garaiz baino lehen azken tanta arte zukututako limoia haiz, hik ez duk jada limoi-urik ematen, kitto beraz, baina lentejak jaten segitu behar diat, hor konpon, hi, Goio, hori ez duk euren problema, jabeena, alegia, Armani, Arma-

ni, noizko alternatiba famatu hori, urteak dituk esaten duala ez dela biharko, baina ordutik bihar asko pasatu dituk, edozer baino lehen, ez gaitezen urduri jar, antola gaitezen, gainerako sindikatukook eta gainerako lankideok, orokorrean, bat datoz, egoera larria da, bai, baina guk ere indarra daukagu, manifestazio bat egingo dugu, hasteko, ezin gaituzte part botata utzi, konpromisoak dauzkate gurekin, ederki asko aberastu dira gure kontura, azken hamabost urteetan, borroka egingo dugu, negoziatu beharko dute, negoziatzera behartuko ditugu, langileria berriro karrikaren jabe, beren ikur zaharrekin, jendea trumilka bildurik, Poliziaren karga bat edo beste, atxilotu batzuk, ez beste garai batean bezainbeste, hala ere, ez kargak eta ez atxilotuak, eta patronala eseri da sindikatuekin negoziatzera, ikusten, Goio, esaten zuen Armanik, ikusten, orain, albiste on horrekin batera badut beste bat txarra, urte on batzuen ondoren Elektrikak jaisten ari dituk, baina lanpostuei eutsi egingo zieagu, bai horixe, negoziazioak gogorrak izango dituk, negoziazioak gogorrak izaten ari dira, luzeak izaten ari dira, eta ez dirudi bide onetik do-

azenik, Elektrikak berriro behera, potroak, hi, negoziazio luzeak eta korapilatsuak eta halako desanimo orokorra zabaldu da fabrikan, aldez aurretik sentitutako derrota batena, kalean ere gero eta jende gutxiago, Poliziak ez du kargatzeko ez inor atxilotzeko beharrik ikusten, pintura-planta hemen geratuko da, berrogeita hamazazpitik gorakoak aurrejubilatuko dituzte, eta gainerakoak kalera, hiru mila, bai, hiru mila baino beste lau milarena salbatu dugu, zer nahi duzue, ez dago besterik, baina nik berrogeita hamasei dauzkat, Armani, zorte txarra, Goio, zorte txarra, ahal izan den guztia egin dugu, baina ez dago besterik, azkenak argia amata dezala.

(Nola ez dira, ba, Elektrikak jaitsiko, pentsatu du Goiok).

Le bon sauvage

Gutxienekoa da jakitea bulego hau gobernu autonomiko edo are zentraleko erakunde batekoa, banku, egunkari, profesional independiente batena edo are etxe partikularrekoa eta guztiz pribatua ote zen. Munta duena da jakitea bulego hartan lan egiten zuen pertsona, Gizon Handia jauna, bere biografia dagoeneko nahikoa luzean, tipo horretako bulego horietako askotatik pasatua zela, noiz buru, noiz aholkulari, noiz konspiratzaile, noiz negoziatzeko zerbait daukan bezero, noiz bezeriaren interesak kudeatzen dituen tratulari, noiz saltzaile arrunta, alderdi politiko zibilizatu guztiekin harremanetan egon eta gero, harik eta erabaki garrantzizkoak hartzen diren toki gorenetan ezagun, oso ezagun, bihurtu arte, klasiko ez esateagatik; eta klasiko, halako moldez eta halako maneran, non ordurako gutxienekoa baitzen zer kargu betetzen zuen, eta non: esaterako, administrazio autonomikoko goi mailako ordezkari, edo honen eta gobernu zentralari eusten zion partiduaren arteko bitartekari, edo

halako banku, enpresa edo egunkariko administrazio kontseiluko kide, edo –zergatik ez, Gizon Handia bezalako batek horrenbeste ahal zuen, eta gehiago ere–, demagun, hiritar burutsu, eraginkor, serio, arrazional eta ponderatu batzuek osatutako iritzi-korronte bateko lider; eta halako moldez eta halako maneran non ordurako, denen begietara, berdin baitzen zer alderdik, zer enpresak edo zein familia ahaldunen arteko interes-uztarketak lagundu zioten unean uneko kargura igotzen. Bestalde, proberbiala zen traje italiarrak oso ongi ematen ziotelakoa, eta haien bilduma ederra zuela, nahiz maliziotsuek esan ez zela bere bizitzan jantzi zituen traje politiko-ekonomikoen bilduma bezain anitza.

Gizon Handiak ez zeukan izenik –izan ere, bere kasuan gutxienekoa izena da, ez bada lur azpiko magma-korronte bat laburbiltzen duen marka den aldetik–, hitz batez, eta ez zuen bere burua sigla edo kargu baten pean ezkutatu behar, alegia, ez zuen inolako justifikaziorik behar Gizon Handia izateko. Bai, irakurle –barka ezazu bokatiboaren erabilera zakar hau, truku merkea baizik ez denez–, zalantzarik gabe sines-

gaitza irudituko zaizun arren, horrelako jaunak badira mundu demokratiko honetan; dozena bat, batez beste, fakturazioa mila milioira iristen den eskualdeko. Norberari bizitza izorratzea beste lanik ez duen putakume bat, esango dute intzibilizatuenek eta basatienek; jauntxo bat, esango dute beste batzuek, formei arreta jartzeak eta historia pixka bat jakiteak ez duela norberaren posizioaren irmotasuna gutxiesten uste dutenek. Baina oker leudeke batzuak eta besteak, horrelako irainak, gordinenak bezala kultu-usteenak ere, ezgaitasun baten adierazle baizik ez direlako, ezjakintasun itzel baten isla, humanoen arteko tratuaren sakon hondogabearen eta giza-harremanen berezko zailtasunaren latza atzemateko ezina baizik ez baitute salatzen. Kasurik onenean –hau da, borondate txarrik edo herra gaiztorik leporatu ezin zaienen kasuan, halakorik balitz–, herri xehearen usteen nolakoaren adierazle izango lirateke, eta honako hau bukatu beharko genuke: herri xehearen usteak kamutsak eta ezjakinak direla, alegia, herri xehea bera bezala. Gauzen berezko ordena da, jende zenbait –gero eta gutxiago, egia esan, eta eskerrak– gauzen

berezko ordenaren aurka oldartzen tematzen den arren.

Gizon Handiari zegokionez, tokitan zegoen gauzen berezko ordenaren aurka oldartzen saiatu zen eguna, inoiz saiatu baldin bazen. Gizon Handiak bestelako kezkak zituen astelehen goiz hartan; esaterako, tripetan ernatzen zitzaion ezinegon lauso eta definigaitz hura, edo hainbestean behin ziztatzen zion buruko min hori. Baina biak ala biak, astelehenerokoko kontuak ziren, denborarekin konturatu zen beste zerbaiten adierazpen psikosomatikoak baizik ez zirela, eta horrenbestez etsi zuen biekin bizitzen ikasi beharko zuela, baita ikasi ere; zer gaitzen adierazpen psikosomatikoak ziren, hori ez zuen hain argi ikusten, nahiz gehienetan identifikatzen zituen adierazpenok bizkar gainean eraman ohi zuen erantzukizunen karga erraldoiarekin, eta bere baitan agitzen zen Ideia Handien borrokarekin, bere gogoa lehen mailako borrokaleku intelektualtzat zeukanez. Interfonorantz makurtu zen eta kafe bat eskatu zuen.

Izan ere, errutinazko keinuen errepikapena bezalakorik ez zegoen tripetako ezinegon lausoa

eta buruko ziztadak desagerrarazteko, eta kafe bat interfonotik eskatu eta hartzea zen errepikapen erritual horretako puntu nagusietako bat, nahiz eta hemen kontraesan gogorrean erortzen zen, medikuak esana baitzion kafe gehiegi ez hartzeko, tentsioa altua zeukalako. Baina kafea beharrezkoa zuen: hamarretan puntuan Madrilgo egunkari oso eraginkor baten zuzendariaren deia espero zuen; Gizon Handia egunkariaren aholku-emailea zenez, telefonoaren bidezko kontaktu hori ohikoa zen, hamabostean behin burutzen zena. Baina egun hartakoa bereziki mamitsua izan zitekeela aurreikusten zuen; beraz, drangada txiki eta azkarrez hartu zuen eraman berri zioten kafea, eta deiaren zain geratu zen, hatzekin kaobazko mahaiaren gainean joaz.

Deia hamarretan puntuan izan zen, aldez aurretik esan bezala, suitzarrei egozten zaien puntualitateaz. Aholkulariak eta zuzendariak ohiko agur protokolarioak trukatu zituzten, eta solasari ekin zioten; Espainiako aktualitatea errepasatu zuten, luze, periferietako uneko egoerei arreta berezia jarriz; xehetasunak gorabehera, Gizon

Handiak ikusi zuen, asetasunez ikusi ere, bere ikuspuntu propioak, batez ere berak hobekien ezagutzen zuen periferia-zatiari zegozkionak, emankor gertatzen ari zirela eta bidea egiten ari zirela hiriburuan; bestetik, berri jakingarri aski jaso zuen une hartan apur bat urrun geratzen ari zitzaion eta hain ongi kontrolatzen ez zuen gorteari buruz. Ondoren, munduko berriez arduratu ziren. Musulmanen terrorismoaren gaia ezin saihesteko modukoa zenez, itxoin egin zuen, zuzendariak berak puntua eman zion arte:

– Zer iruditu zaizu Idazlearen artikulua?

Idazlea idazle handia zen –barka bedi errepikapena–, boladan zegoen, egunkariak saltzen asko laguntzen zuen, eta Gizon Handiak berak baino are birmoldatze ideologiko bizkorragoa burutzeko gauza izan zenez, posizio oso tinko baten jabea zen; egia zen azken denboretan izan zirela bere pribilegiozko tokitik kanporatzeko xedearekin hasitako mugimendu batzuk, baina Gizon Handiak, zen guztiarekin, bazekien bere mugen berri, eta bazekien une hartan ez zegoela bere esku Idazlearen aurkako kanpainarik hasterik. Beste alde batetik, esan dezagun ezen,

Gizon Handiak izenik ez bazuen, are gutxiago zuen izenik Idazleak, kontuan hartuta ehunka hautagairen artean labankazoka buruturiko pelea batetik bizirik ateratako dozena hautatu bateko ordezkaria zela, eta hortaz, guztiz trukagarria.

– Zer iruditu zaidan? Ondo...

Bistan zenez, egunkarikoek ez zioten Gizon Handiari lehentasunezko tratua ematen «ondo» sasiko batekin erantzuteagatik. Zuzendaria isilik geratu zen, zain, «ondo» eta geroko puntu suspentsiboak entzun izan balitu bezala, eta Gizon Handiak etenaldia aprobetxatu zuen bere baitan begiratzeko, ea kapaz zen iritzi bat osatzeko.

Zer iruditu zitzaion, benetan, artikulua? Puntu honetan Gizon Handiaren burdinazko borondatea flakiak jota geratzen zen, garai bateko nahikeriak etortzen zitzaizkiolako burura. Zer iruditu zitzaion, zer iruditu zitzaion Gizon Handia bihurtzeko ito behar izan zuen letrazko gizon erreprimituari? Bere bulegoa bezain distiratsua, batetik, Idazlea erudito handia baitzen, eta bazekielako bere hitzari bristada eta txinparta ateratzen; bestetik, Idazlearen eskura baizik ez zego-

en, inork bere buruari ez eta Idazleak bereari permititzen ahal zion heterodoxia inbidiagarri –inbidiagarri, modu ez batere osasungarrian– batekoa; loturarik gabeko pentsamendu aske eta jatorrizko baten lekukoa ere iruditzen zitzaion, beti bezala, desinhibitua, estilo garatukoa, bururatua. Hitz batez, Gizon Handia tripak jaten zegoen, bekaitzaren bekaitzez, Idazleak artikulu bat izenpetzen zuen bakoitzean bezala, Idazleak bera sekula izango ez zen bezalakoa izatea lortu zuelako; bazegoen psikoanalisiari uzteko moduko zerbait maitasun-gorrotozko harreman honetan, ondorengo datua ezagutuz gero hobeki ulertuko den bezala: Gizon Handia, artean, guztiz sinetsirik zegoelarik ezen berari, zen tokikoa izateak zehaztu, markatu ziola bizimodua, are bizitza bera ere, eta aldi berean, Idazlea sinbolizatzen zuen gizaseme-klasekoa izatea galarazi, errealitatea zen Idazlea kasik bere herri berekoa zela, bere herriaren ondo-ondokoa, zehatz esateko, eta hori zela-eta mila bider gehiago ere jaten zituen tripak Idazleak artikulu bat izenpetzen zuen bakoitzean.

Baina oker geundeke usteko bagenu hor bukatzen zirela Idazlearen artikuluak Gizon Handiarengan sortzen zituen erreakzioak; bazegoen beste osagarri bat: guztiarekin ere biak giza-talde berekoa zirelako kontzientzia garbia, eta biak parte ziren giza-taldekoak mehatxu pean bizi zirelakoa, eta orduan, elkartasunezko sentimendu oso oinarrizkoa zela tarteko, ezinezkoa zen Idazlea kritikatzea, are gutxiago jakinik ezen, Idazleak artikulu horretan terrorismo musulmanari buruz ateratzen zituen ondorioek ipar ideologikoa markatuko zutela puska batean, kasik kontsignaren mailan markatu ere. Esan gabe, gainera, Gizon Handia bera bat zetorrela aipatu ondorioekin. Baina, guztiarekin –eta hau artikuluak sorrarazten zizkion sentimendu eta ideien matazaren hirugarren elementua zen–, iruditzen zitzaion Idazlea apur bat erlaxaturik zebilela, tentsioa galduta bezala, artikulu hartan bederen, apur bat zabar, bere egiazko motibazioak eta bere egiazko ideologia ageriegi nabarmenduz, alde zaurigarria erakutsiz; eta, alde horretatik, denok konforme bazeuden ere Idazlearen aurka egiten ausartuko zen edozein garaitu-

ta zegoela bataila hasi baino lehen, oinarrizko zuhurtzia batek esaten zion Gizon Handiari ez zela komeni defentsa-hesiak eraistea hain azkar; eta hortaz, iruditzen zitzaion Idazleak gehiegizko konfiantza erakusten zuela, eta gehiegizko konfiantza, norbera inmune eta zigorgabe uste izatea –hori bazekien Gizon Handiak, ongi jakin ere– amildegia, hilobia zela. Azkenik, honi guztiari gehitu behar zitzaion ezen Gizon Handiak, hainbeste karguren jabe izan eta gero, zeukan gizarte-posizioa izanda, aholkulari izanda, Idazlea bera baino hamar bat urte zaharragoa izanda, ongia eta gaizkiaren gainean zegoelako itxurak gorde behar zituela, eta hortaz, ezin zuela, Idazlearenganako, pasio humanorik nabarmenduko zuen bestelako sentimendurik agertu, afektuzko kamaraderia batetik harantzago.

Baina zuzendaria zain zegoen, eta nolabait eman beharko zuen iritzi bat.

– Ondo... Ondo, beti bezala; eta guztiz bat nator analisiarekin. Baina...

– Baina...!?

– Baina iruditu zait, nola esan, apur bat... Apur bat etxeko zapatilletan idatzitakoa.

Kitto. Esana zegoen.

– Etxeko zapatilletan? Bere xarmaren parte da. Lehengoan ez zenidan esan, ba, martxa honetan segituz gero laster gidaliburu bat beharko dela gure egunkaria irakurtzeko? Idazleak beren etxean bezala sentiarazten ditu irakurleak.

– Baliteke, baina uste dut orain urrutiegi joan dela.

Gizon Handiaren ustez, sinpletasuna, sinpletasun erlatiboa, beti ere, ondo zegoen kiroletan; ez iritzi artikuluetan, non larderia intelektuala ez baitzen inoiz sobran. Eta justu aurkakoa gertatzen ari zen gero eta gehiago: kiroletakoek filologo edo ingeniari batek nekez uler zitzakeen testuak sortzen zituzten, eta iritzikoek prakak jaitsita hitz egiten zuten, etxeko atezainaren gelan baleude bezala.

– Argudio onak edukiko dituzu hori esateko, ezta?

Gizon Handiak eztarria garbitu zuen, eztul moduko batez.

– Ikus dezagun: hasteko, deblauki aitortzen du oraintsu arte ez duela irakurri Sterneren *Tristram Shandy*...

– Et, et, et... Berak ez du horrelakorik aitortzen; esaten du gaztetan bi aldiz saiatu zela liburu horren trabak gainditzen, eta ezinezko izan zitzaiola. Gainera, hala izatera ere, zer du txarrik aitorpen horrek? Inork ezin dituela klasiko guztiak irakurri, hori materialki ezinezkoa delako, gogorarazi behar dizut?

Gizon Handiari, hainbeste aholku eman beharrez, eta hainbeste tokitan, unibertsitate mundua, literatur mundua eta kultura mundua ongi ezagutzen zuenari, klasiko bat *berrirakurtzen* dela, eta *berrirakurri* ez, eta irakurtzen ari dela aitortzen duenari kreditu guztia erretiratzen zaiola *ipso facto* ederki asko zekienari, egunkariko zuzendariaren hitzak iraingarriak izan zitzaizkion; iraingarriak, sinatu gabe bazen ere, ordura arte indarrean egondako ituna urratzen zutelako, berari aldez aurretiko inolako gaztigurik egin gabe; eta iraingarriak, horrek esan nahi zuelako Idazleari lizentzia hori ere ematen zitzaiola, alegia, ematen ahal den handiena, preziatuena, esklusiboena, benetan altxor bat bezalakoa zena: bere jakintza itzelaren zuloak herabe gaberik erakustekoa, hain zuzen, ordura arte oso-oso gu-

txiri –arestian esandako labankazokako peleatik bizirik irtendako besteren bati, gehienez ere– aitortzen zitzaiona, baina ez inola ere Gizon Handiari berari, esaterako, zen Handia izanda ere. Are, non egongo zatekeen bera, Ostrogodoff, Van Kasposen, Leibnizbarrutia, Schoppedhauer, Popafrescu edo J.J. Jodowski, demagun, bere artikuluetan aipatu zituen bakoitzean, aipuaz aparte, egile horien gaineko ezagutza erreala aitortu izan balu? Iraingarria zen, izan ere; bera *bon sauvage* bat zen bitartean, Idazleak bide askea zeukan baita bere ezjakintasuna erakusteko ere, eta horrekin bere prestigioak are gorago egingo zuen, oraindik, *egiati*, *jendekoi*, *humano* agertuko zelako jendearen begietara. Gizon Handiak nahiago izan zuen zuzendariaren hitzak aintzat ez hartzea, ez entzunarena egitea, eta aurrera segitu zuen.

– Beste apunte hori, Londresko bonbek Taylor Squaren, *hamarkadetan berea izan den hotelaren ondoan eztanda egin zutela* dioena, guztiz tokiz kanpo dago. Zertara dator horrelako komentario bat, norbera zer ondo bizi den erakusteko ez bada? –«erakusteko» ordez «muturretik

pasatu» izan zen burura etorri zaion lehena, baina erreprimitu egin zen.

– Gizon Handia, ez nuen uste... –zuzendaria irriz ari zen–. Jendeak gero eta gehiago bidaiatzen du.

– Zuk badakizu zer preziotan dauden hotelak Londresen?

– Noski. Zuk ere bai.

– Horregatik ba! Jendeak bidaiatzen du, jakina; klase ertaina joaten ahal da Londresera, gehienez, eta egiazko fortunak ordaindu behar izaten ditu zulo ilun, txiki eta zikin batean lo egitearen truke. *Hamarkadetan nire hotela Londresen*... Probokazio bat da. Exhibizionismo merkea.

– Jendeari gustatzen zaio jakitea batzuk ondo-ondo bizi direla. Eragin estimulagarria du horrek; beren buruari esaten diote: agian neuk ere, egunen batean... Norbera izorratuta egon daiteke, baino errazago eusten dio pentsatzen duenean norbaitek bizitzaren ederra gozatzen duela. Efektu lasaigarria dauka, soziologikoki konprobatuta dago. Bestela, hau da, ongi bizitzeko modurik ez dagoela eta mundu guztia izo-

rratuta dagoela pentsatuz gero, etsiak joko luke kristo guztia.

– Hori parte bat da; beste hainbatek, ordea, badaki ez duela Londresen hotela *hamarkadetan* izango. Zorte askorekin, *breakfast*-eko txingar zatiak edukiko dituzten maindire gainean lo egin beharko du Londresen, bertara iristen bada, trukean begiko kanika ordainduta... Eta askok badaki hori. Ez da komeni horiei argudioak ematea.

– Bai, bai; Erromako Inperioaren hondamendiaz ari zara, ezta? Barbaroen etorreraz? –esan zuen egunkariko zuzendariak, ironia nabarmenaz; Gizon Handia laguntzaile estimatzekoa zen, baina batzuetan bazuen, nola esan, halako ukitu jansenista bat, komikotasunaren ateetan jartzen zuena.

– Prekauzioak oro ez dira aski. Irakurri duzu Sterneren *Tristram Shandy*? Nik bai –esan zuen Gizon Handiak. Gezurra zen. Edizio kritiko baten hitzaurrea irakurria zuen, aspaldi.

– Jakina –esan zuen zuzendariak, eta bere kasuan ere gezurra zen. Baina liburua erreferentziaz ezagutzen zuen.

– Orduan konturatuko zinen nobelaren laburpena ez dagoela gaizki, baina erdipurdikoa dela; batxilergoko edozein ikaslek egingo zuen.

– Zure garaiko batxilergoko edozein ikaslek, agian bai. Batxilergoa asko aldatu da, zuk egin zenuenetik –atera zitzaion zuzendariari, bestearen petralkeriak apur bat aspertzen hasia. Zuzendariaren aburuz, Gizon Handiaren arazoa zen, funtsean, ez zuela erabat ulertzen, edo onartzen, bera ere trukagarria zela. Fakturazioa mila miliotara iristen den edozein eskualdetan inor ez da ordezkaezina.

– Baina erridikuluaren mugan dagoena da zer nolako jauzia ematen duen Sterneren liburuaren haria terrorismo islamiarraren gaiarekin lotzeko. Hori ezer ez den tokitik petrolioa atera nahi izatea da –aipuaren errazak lotsatu zuen, eta zerbait gaineratzeko beharra sentiarazi–. Olioa eta ura, eguna eta gaua, nahasezina nahasi nahi izatea da. Ezinezkoa. Patetikoa.

– Nire ustez ez dago hain gaizki: Sterneren nobelaren aiputik hasi («gizonak asaldatzen dituztenak ez dira gauzak, gauza hutsak, gauzen gaineko iritziak baizik»), Laurence Sterneren bio-

grafia bera eta berorrek islatzen dituen balioak (bizi-nahia, esaterako; gaixorik egonik ere ez zion idazteari utzi, kementsu) terrorismo islamiarraren martirien balioekin kontrajarri arte.

Gizon Handia, ordea, gezurretan ari zen, eta guztiz kontzientea zen bere gezurraz; izan ere, zuzendariari esan zionaz kontra, horixe zen Idazlearen artikuluan gehien miretsi zuena: Sterneren liburua terrorismo islamiarraren gaiarekin lotzeko egindako irakurketa eta sortutako diskurtsoa. Gizon Handiaren ustez, benetan handi ziren liburuen ezaugarri nagusia zen bertatik edozein tesi, baita guztiz kontrajarrita zeudenak ere –edo ia-ia–, atera ahal izaten dela. Horretarako, baina, liburu handi batek irakurle handi bat eskatzen zuen; eta ‘irakurle handi bat’ horrek irakurle sortzailea esan nahi zuen; alegia, bere burua liburuaren jatorrizko hitz, ideia, datu eta pertzepzio estetikoko eskema ugariekin kontrastatuko zuen irakurlea, hitzok bere gisa, eta uneko bere interes eta obsesioaren argitara, berrinterpretatuko zituen arte, zentzu bat, zentzu berri bat, edo nahiago bada berriz funtzionala eta operatiboa den zentzua emateraino. Holako

irakurketa egiteko gauza den irakurle sortzailea da liburu bati gaurkotasuna, betierekotasuna, eternitatea ematen ahal dion bakarra, holako irakurle bat da edozein liburu handi bihur dezakeena. Bai, Gizon Handiak garbi ikusten zuen artikuluan zehar Idazleak ederki erakusten zuela zer neurriko irakurlea zen, itxuraz antipodetan zeudekeen bi mutur –*Tristram Shandy* eta terrorismo islamiarra– bere kezken eta bizipenen araberako diskurtso koherente batean errenditzeko gauza izan baitzen, horretarako baldintza bakarra Idazlearen beraren intelektoa –zeina argi-eroale, gudu-zelai, itsas-argi edo entzima-multzo baten antzera imajinatzen ahal baitzen, nahi erara–izanik. Justifikatzen al zuen horrek guztiak Londresko *hamarkadetako hotela*? Edozein kasutan, Gizon Handiak erraz onartuko ez zuen arren –ezta bere buruari ere!–, artikulua irakurri zuenetik Sterneren liburua irakurtzeko gogo bizia piztu zitzaion.

– Patetikoa! –errepikatu zuen, beraz.

– Konforme, kontuan hartuko dut –esan zuen zuzendariak, batere kasurik egiteko asmorik ez zuenean erabiltzen zuen formula. Buruan zebil-

kion ezen Sterne bera, apaiz anglikanoa izanik, ez zela izango hain zorrotza bere juzguetan. Gainera, senak esaten zion Gizon Handiaren kritikak *crescendo* baten moduan antolatuta zeudela, eta hortaz, onenak etortzeko zeudela oraindik.

– Sandiarekin ere sartzen da –Sandia mundu zabalean ospe handia zuen beste idazle bat zen–, banidoso etnozentrikoa deituz, konturatu gabe berak bekatu horixe egiten duela, uste duelarik *geu* baizik ezin garela munduko nagusiak izan. Norberaren buruko bartza ikusi ez, eta besteren begiko makarra...

– Sandiak ez du honetaz ezer jakingo. Ez zaio oihartzun urrutikorik ere iritsiko.

– Baina orain arteko guztiak txikikeriak dira. Benetan larria dena da norberaren burutik pasatzen dena hain modu xaloan agertzea, baita konforme bagaude ere, edo hobe, horregatik beragatik, konforme gaudelako. Etsaia gutxiestea arriskugarria da.

– Zertaz ari zara, zehatz?

– Esaldi honetaz: *Mundu honetako egiazko pobreek aberatsak pairatzen dituzte eta elkar hiltzen dute, baina ez dute sarraskirik egiten*

gure artean. Nagusi izan nahi dutenek erasotzen dute bakarrik, ez baztertuta daudenek.

– Eta zer du txarrik esaldiak? Nik egia biribila dela esango nuke.

– Zer duen txarrik? Gardena dela, hori du txarra! Oraintxe egingo dizut edozeinek –*edozeinek*, konturatzen zara? Hor dago koska!– egingo duen bat-bateko itzulpena: *guk, aberatsok, munduko pobreak izorratu ditugu, eta elkar hiltzera bortxatu, eta ondorioz haiek ezin digute ezer egin. Eta zerbait egiten ahal digutenek, egin egiten digute, ez beren burua defenditu nahian, munduan nagusi, gure ordez, izan nahi dutelako baizik, begi bistakoa denean gu munduan nagusi izatea –gu, mendebaldetarrok, gizonok, kristauok, zuriok– gauzen ordena berezkoa dela.* Ezta Gurutzadetako garaian bageunde ere!

– Eta nola idatzi beharko litzateke, zure ustez?

Gizon Handia isilik egon zen une batez, ez erantzuna prest ez zeukalako –zuzendariak deia egin baino lehenago prest zeukanez–, baizik eta ez zuelako nahi horixe oso nabarmen gera zedin.

– Honela, esaterako: *Ez ditugu ahaztu behar Ekialde Erdiko eta Ekialde Hurbileko herrietako jarreretan dautzan botere-elementu eta geopolitika-elementu bereziak, eta zenbait demasakeriak erreibindikazio baten inguruan biltzeko eskain dezakeen aukera.* Horrelako zer edo zer –gaineratu zuen, esaldia inprobisatua zelako itxurak eginez.

– Hori ulergaitza da.

– Horregatik, ba. Esaldi horrek kultur eta informazio-maila ertainaren jabe den edonori zer pentsatua ematen dio –«bere burua listotzat daukan makina bat inoxenteri ematen dio bazka» zen benetan pentsatu zuena–. Esaldi horrek eztabaida sor dezake; eta eztabaida horretan gure argudiobidea nagusi da –«aho asko estaliko genituzke», esan nahi zuen–.

Madrilgo egunkariko zuzendaria isilik zen, Gizon Handiaren barne-hustuketa bukatzen ari zela konprenituz.

– Jainkoarren! *Roberto Alcazar y Pedrinen* tebeo bat dirudiiiii...!

Gizon Handiaren ahotsa gora joan zen, glotisa erabat itxi eta edozein soinuri bidea ixten zion

espasmo moduko batean, ez oso ozena haatik, lehertu zen arte.

Eulia azaroan

«Euli bat azaroan! Halakorik!» pentsatu zuen, eskua astinduz haragi xehatuaren gainetik oniltzen zuela. Kilo laurdena pasatxo zen, berrehun bat gramo txahalkia eta gainerakoa zerrikia. Eskua astindu zuenean esne-tanta bat erori zen haragi-metaren gainean, katilu batean ogi-mamia zuelako esnetan blai, oreari gehitzeko. «Euli bat azaroan, hau nazka!» pentsatu zuen berriz, eta frigorifikoko atea zabaldu zuen arrautza baten bila.

Esnez blaitutako ogi-mamia eta arrautza gehitu, eta haragia lantzen hasi zen, eskuz. Udazkena beroa izan zen, baina lehorra, eta ez zen apenas onddorik sortu. Berak esan beharko balu, ordutik zegoen haserre senarra; gero, are okerrago, uso-pasa izorratu zen, usoek hartu zuten birus nazkagarri horren beldurrez inor ez zelako ausartzen usorik jaten. Orain jada azaroaren bukaeran zeuden, elur-bezpera urtea normala izatekotan, baina sasoirako bero zen, ikaragarri bero, eta atzerapenez bazen ere euritea

etorria. Ez zekien azaroaren bukaeran onddorik sor zitekeenentz, baina usoenak erremediorik edukiko ez zuenez, otoitz egin zuen, buruz, onddoak sor zitezen, ea horrela senarraren muturraldia bukatzen ote zen.

Haragia, ogi-mamia eta arrautza halako oreitxura hartzen hasi zenean, haragi puskak hartu eta bolatxoak egiten hasi zen. Hogei bat aterako zitzaizkiola pentsatu zuen, ez zen gehiegi baina nahikoa bai; berak ez zituen bi baizik jango. Sukaldeko leihotik erakunde publiko batek betetzen zuen eraikina ikusten zuen; berak ez zekien zer erakunde zen, epaitegia ote zen, ministerioaren ordezkaritza ote zen, gobernu autonomikoaren departamentu bat ote zen. Zekiena zen eraikuntza aski dotorea zela, harrizko eskailera zabalak zeuzkala atarira iristeko, eta eskailerak igotzen zituzten gizonezkoak, gorbatadunak gehienak, aurpegia gorrituta iristen zirela eskailera-burura, gorbataren korapiloa urka-bilurra bailitzaien. Inguruari gaizki egokitutako izakiak dira –esan zuen behin bere alabak, eskola zuenak, eskailerak arnasestuka igotzen zituen izaki horietako bat ikusirik–. Patetikoak dira beren jan-

tzi estuetan sarturik, aireak kalte egiten diela dirudiela.

«Valentinaaaaaa!», «Valentinaaaaaa!», entzun zen gelatik. Valentinak hasperen egin, eskuak txorrotan garbitu eta mandarrarekin idortu zituen, gelara joateko. Berak ez zuen eskolarik, baina ulertu uste zuen alabak zioena, nahiz gogorregi iritzi: gazteak, pentsatu zuen, sasoiak itsutu egiten baititu, hartaraz gero, pertsona beti da nekez moldatzekoa, inguruari egokitzeko borrokan zaildutako izakia. Baina alaba ez zegoen han, urruti baizik, eta ezin zuen ikusi bere aitona, gelako ohean zetzana. Poztu zen alabarengatik. Bizi, bizi dadila.

Aitona gizon handi samarra zen, eta orduan ere, urte asko izanagatik eta pisu dezente galdu izanagatik, ez zen laurogei kilotik oso urruti ibiliko. Valentina ere emakume fuertea zen, baina jada ez zen gaztea eta gero eta nekezagoa zitzaion aitona gobernatzea. Aitonak laurogeita hamabost urte eginda zeuzkan, eta ohean zetzan, ohetik apenas atera gabe bizi zen. Valentinak latexezko goanteak jantzi, goiko manta apartatu zuen usain gogorrari kasurik egin gabe,

eta pixoihalaren itxiturak libratu zituen; gero besoak sartu zituen aitonaren gorputzaren azpitik, eta ahalegin handia eginez, bira eginarazi zion albo baten gainean utzi zuen arte, eta pixoihala kontu handiz erretiratu, bildu eta gelaren zoko batean utzi zuen. Komuneko iturrira joan zen tangarro txiki batez, eta urez bete zuen. Aitonaren ondora itzuli zen ura, zapi garbi, komuneko papera eta usain goxoa zeukan toallatxo txikiaz horniturik. Hainbat minutuz ibili zen, ura papera zapia toallatxoak astintzen, garbitzen eta idortzen, ilargi-paisaje hartan. Gero beste pixoihal handi bat hartu zuen paketetik, izara gainean zabaldu zuen, lehengo maniobra kontrako norabidean egin –aitonaren gorputza biratu pixoihal berriaren gainean pausatzeko, alegia– eta itxi egin zuen. Aitonak ez zuen aurpegiko muskulurik mugitu operazioak iraun zuen bitartean; mundu honetaz landa bide zegoen sabaiko puntu zehaztezin batera begira egon zen, maskara bat jarrita bezala. Sukaldera bueltan, pixoihal zikina zaborraren kuboan sartu zuen, duda eginez; ez zekien sekula pixoihalak sukaldean zeuzkan hiru kubotatik (alabak jarritakoak) zeinetan bota

behar zituen, are gutxiago, kasu honetan bezala, pixoihalak gai organikorik bazuenean. Senez, eulien interesa nabarmenen bereganatzen zuen kubora bota zuen. Gero latexezko goanteak kendu, bota, eskuak garbitu zituen mistolarekin, eta ostera ere mandarrean idortu. Besoetan eta giltzurrunetan mina zeukan, eta horixe zen senarrari esan nahi ziona, besoak eta giltzurrunak minduak zeuzkala, baina senarra haserre zegoen eta ez zion horretarako biderik ematen. Onddorik sortuko balitz, igual. Onddorik balego, senarra herrira arratsalderen batean hurbildu eta saskikada eder bat bilduta itzultzeko... Baina nekez aterako ziren onddoak abenduan, urtea sasoirako oso beroa izan arren, mendi kaskoek ordurako ohi zuten elur-izara falta izan arren. Euria bai, ordea, euria ausarki.

Lanbasa hartuta itzuli zen aitonaren gelara, eta ur zipriztinak lehortu zituen. Hilabete batzuk lehenagotik, aitonak ez zion apenas deus esaten. Zerbait behar zuenean egiten zituen deiadar luze horiek, eta ia besterik ez. Arraiaren beste aldetik zetozela ziruditen deiadar luzeak, haize firin mehe bat bezalakoak, sarkorrak, izu-eragi-

leak, ia. Haur jaio eta haur hil. Lau pareta horiek, Valentinaren eskuak, begirada galdu bat, hartara zegoen murriztua aitonaren mundua. Hamabi metro koadroko miasma hori.

Haragi-pilotatxoak egiten bukatu, irinetan pasa eta frijitzen hasi zen. Bai, bizitza asko luzatu dela esango dute, pentsatu zuen, baina nik ez nuke nahi aitona bezala bukatu, horretarako nahiago hilik. Baina gero pentsatu zuen ezen, bost edo sei urte ez zirela, aitona oraindik zer edo zertarako gauza zenean, berak ere horixe esaten zuela; eta orain aldiz, miseriak miseria, ez zirudiela hil egin nahi zuenik, bere borondatearen hain agerpen eskasa egiten zuen agure batek benetan zer nahi zuen jakitea biziki zaila zen arren. Pilotatxoak frijitzen bukatu zuen. Tomatea aurretik eginda zeukanez, frigorifikotik potoa eskuratu, ireki eta kazuela batean bota zuen. Gero haragi-bolak tomatetzan nahastu eta frijitzeko erabilitako su elektrikoa amataturik, horren gainean utzi zuen kazuela. Su-plaka erabat hozterako, irakinaldia egingo zuten. Kazuela estali egin zuen, euliak haragiaren gainean ez zitezen pausa.

«Valentinaaaaaa!». Agureak zer edo zer jaten zuen eguneko ordu hartan. Urdailetik ez zebilen oso santu, eta medikuak esan zion askotan jatea komeni zitzaiola, aldi bakoitzean gutxi janda. Arrautza bateko tortilla prestatu zion, gatzik gabe, tentsioa altua zeukalako. Agurearen ondoan eseri zen, tortilla puska txiki-txikietan zatitu eta eraman infinituz puskak ahoratu zizkion. Aitonari kosta egiten zitzaion mastekatzea eta irenstea, eta ahoa irekitzen zuen bakoitzean tortilla-hondarrak ikusten zitzaizkion hortzetan eta mihian, listuaz nahasturik. Edaten eman zion, kontu handiz, eta bukatu zuenean sukaldera itzuli zen platera eta basoarekin. Harrian zeuden tresnak egin zituen. Bukatutakoan, eskuak mandarrean sikatu zituen.

Gero ikuzgailua ireki eta aitonaren izarak atera zituen. Euriarekin egiazko arazoa zen, aitonari azken boladan egunero aldatu behar zitzaiolako beheko izara, gutxienez, batzuetan egunean bitan ere bai, eta gero orduak eta orduak behar izaten ziren lehortzeko. Valentinak jangelako mahai gainean zabaltzen zituen, edo bi aulkien artean, eta azkenik jangela zen elurrak har-

turik zegoela zirudiena. Hauxe mundu aldrebesa, pentsatzen zuen orduan, nik ez dakit negutegi-efektua, CO_2 jaulkipena, ozono-zuloa edo atmosferaren berotzea den –pentsatu zuen, alabak inoiz egiten zizkien bisitaren batean azaldutako gauzez gogoraturik–, baina mendi-kaskoak garbi eta etxe barruetan ari du elurra, eta euliak konforme. Gero lanbasa berriro hartu eta komuna garbitzera joan zen, laster etorriko zelako osasun etxeko erizaina aitonaren ipurdiko eskara –ohean hainbeste denbora eta jarrera berean egoteagatik sortutakoa– artatzera, eta eskuak garbitzera pasako zen gero, eta zerbaitek ematen bazion amorrua Valentinari, horixe, erizainak komuna zikin aurkitzea izaten zen. Eta ez zen hainbeste gero jendeak zer esango beldur zelako, erizainari esker ona erakusteko modua iruditzen zitzaiolako baizik; izan ere, hainbeste denbora ez zela Valentina arduratzen zen ipurdiko zauriaz, eta berarentzat lasaitu ederra izan zen erizaina etortzen hastea, bera eskasa zelako zauriak sendatzen.

«Valentinaaaaaa!», «Valentinaaaaaa!». Jakina, ahaztuta zeukan, nerbioetako botika emate-

ko garaia zen. Lanbasa utzi, eskuak txorrota azpian jarri eta mandarrean idortu zituen. Aitonaren gelara joan zen eta ohe ondoko mahaiko tiradera ireki zuen, Dopaxfin izenekoa aukeratu, sukaldetik baso bete ur ekarri eta aitonari pilula bat luzatu zion, honek esku dardartiez hartu zuena. Agureak ezpain meharrak irekirik zituen, hortz gutxi eta kamuts batzuk erakutsiz, hiru eguneko bizarra zeukan; ez zuen asmatzen pilula ahora eramaten. Euli bat pausatu zitzaion sudurraren puntan, eta Valentinak uxatu egin zuen. Zaharrak begiratu zion deus esaten ez zuten begiez, edo agian zorabio sideral baten erakusgarri zen espresio huts batez, eta Valentinak begiradari eutsi zion, hortz artean bere maitasunaren zabala zaharraren miseria guztiaren makilarekin neurtzen tematzen zen jainko ezezagun baten aurkako maldizio bat marmarreatuz, eta sukaldera itzuli zen. Behin bertan, eseri zen eta besoak gurutzatu zituen. Gero burua eman zuen beso gurutzatuen gainean, eta negar labur, sakon, intimoko bi tanta lodi erori zitzaizkion masailetik behera. Gero malkoak xukatu, eskuak txorrotaren azpitik pasatu eta manda-

rrean lehortu zituen. Euli bat jarri zitzaion esku arrakalatuen gainean, baina ez zion kasurik egin. Mahaia gertatu zuen.

Eguerdi aldera senarra iritsi zen. Bekozko eta kopetilun, aitonaren gelara sartu-atera bat egin eta berehala eseri zen jangelako mahaian. Valentinak lapikoak eta kazuelak dantzatu zituen.

– Aitona dutxatu behar duzu –esan zion senarrari–. Izan ere, nik dagoeneko ezin dut mugitu.

Senarrak zerbait marmarreatu zuen, ez oso konforme itxuraz, agian herritik gertuko mendian alkilatutako postuan botatzen zituen usoak inork ez zituelako jan nahi izaten. Valentina serio jarri zen.

– Azken finean, zure aita da.

Jangelako sabaian euli batek hegan ekin zion, bertako argi-aparailutik lekutu eta paretako litografiaren markoaren gainean pausatu zen.

Euskara izan

– ¿Eres euhkara o no eres euhkara?

Hasieran ez nuen galdera ulertu, nahastuta eta beldurtuta egonik, nengoen bezala, baina kostata bazen ere azkenik ulertzeak, eta galdera egin zidanak zigarroa eskaintzeak pixkatxo bat lasaitu ninduen, uste izan nuen azalpen bat ematen asmatuko nuela, eta hori azaltzea posible balitz, gainerakoa ere azal nezakeela, ez baitzen inolako zalantzarik hura guztia gaizkiulertu erraldoi eta ikaragarria zela. Azken finean nik ez nuen deus egin.

Baina galdera egin zidanak bere zigarroaren keari begira entzun zidan, eta zigarroa bukatu baino lehen alde egin zuen, une hartan ulertu ez nuen azken begirakune inkietagarria eginez. Orduan etorri ziren besteak.

– ¿Èste es el euhkara? –galdetzen zioten elkarri–. ¿Tú eres el euhkara?

Haiei ezer azaldu nahi izatea alferrik zela iritzirik, zalantza egin nuen bai edo ez erantzutea, eta azkenik, guztiarekin ere aski adoreturik non-

bait, *Sí* esan nuen. Urte dexente pasatu da geroztik eta orain arte ez dut sekula horretaz deus hitz egin nahi izan. Orduan erori zitzaidan lehen zaplaztekoa. Gero eraikuntza hartako sotoko zokoren batean egon behar zuen gela batera eraman ninduten.

– Ahora vamos a ver si tu eres euhkara.

Gure aita zenak ez zuen sekula horretaz hitz egin nahi izan. Eraman zutenean nik hamabi urte baino ez nituen, eta ez nintzen erabat jabetzen. Gogoan daukat, noski, amaren desesperazioa eta beldurra, baita negarrez ikusi nuela ere, hortaz begi-bistakoa zen hura larria zela, baina ez nintzen erabat jabetzen. Gainera, lehengo ordu nahasi horiek pasata, osaba-izebarenera eraman gintuzten, arreba txikia eta biok, eta ordutik dena diferente izan zen.

Gero egoera egonkortu zen, esan dezagun, eta Alcolea del Pinarreko bidegurutzea, eta lautada luze hura, zeinaren albo batean Valdepeñas zegoen, eta hura herri famatua zen ardoa egiten zutelako; Salamanca eta Extremadurako soroetan zezenak ikusten genituen, aske, korrika, kotxeko leihotik, Teruel eta Castellon arteko men-

diak benetan handi zirela ikasi nuen elurra topatu genuen batean, eta Valentzia aldeko zelaiak, ez dakit nik zergatik, baina beti iruditu zaizkit zokobetailuz beteriko ganbara bat bezalakoak, salbu eta laranjondoak loretan zeudenean. Behin funtzionario ozpindu horietako batek esan zigun bezala, iritsi behar omen zen eguna zeinean eskertu eta guzti egingo baikenien, geografia pixka bat ikasi eta turismoa egiten laguntzeagatik. Ordea, egun hura ez zen iritsi, ez horixe. Bitartean, aitari kaskoa urdintzen joan zitzaion eta betaurrekoak erabiltzen hasi zen, eta beti zen barroteen atzeko itzal gero eta meharragoa, partez mito, partez mamu, alde batetik maitagarria, beste alde batetik ezezaguna. Baina ez dezadan dramatizatu; zortzi urte baizik ez ziren izan.

Gero normalitate puskatu bat berregin nahi izatea bezalakoa izan zen, eta horrek ere lanak, eta esango nuke zauria ez zela inoiz erabat itxiko ulertu genuen egunean bukatu zirela lan horiek, eta handik aurrera arnasa hartu –batez ere amak arnasa sakon hartu– eta jada esan ahal izan genuen, familia bat gara, familia normal bat gara. Egia esan, ordurako ni ez nintzen etxean

bizi, eta arrebak ere uste dut handik gutxira utzi zuela gurasoen etxea. Uste dut diot, zeren fetxak dantzari abilak baitira, berez, eta are gehiago data zehatzik ez duten prozesu luzeei buruz ari garenean.

Orduan, iruditzen zait, baderitzot, gurasoek, urte batzuetan, ez dakit ba, sei urtez, zortzi urtez, beharbada bere bizitzako urterik onenak esatea agian gehiegi da, baina bai lasaienak behintzat bizi izan zituztela. Aitak erretreta hartu zuen, bizimodua gutxi gorabehera konponduta zeukaten, eta beren ilobak nola hazten ziren ikustea beste zereginik ez zuten. Tira, hitz egiteko modu bat da, aitak segitzen baitzuen beti zer edo zerekin, baina beste modu batez, urrutiagotik bezala, bareago bezala, hainbeste inporta ez balitzaio bezala, agian hainbeste sinetsiko ez balu bezala, baina sinesmenarekin eta garaitzearekin eta amorruarekin eta ideologiarekin zerikusirik ez zuen beste indar batek bultzatuta bezala, beste horiek denak baino ahulagoa ez zena, bide batez esanda. Elkartasuna? Ezta hori ere, baina, hoberik ezean, dei diezaiogun horrela, nolabait deitzeagatik. Ordukoak ditut nik

akordurik onenak, aitarenak; uste dut orduan ezagutu nuela gehien, uste dut orduan ikasi nuela zer pertsona-klase zen, beste inoiz baino hobeki. Ez dut esango zer nolako pertsona ederra, seme baten lekukotasun afektuzkoa baizik ez zelako izango, eta hortaz, zinez balio gutxikoa. Esan dezadan, besterik gabe, ez dudala orduan beste hitz egin aita zenarekin. Ba, orduan, galdetu ere egin nion, halako batean, ni nahiko heldua nintzela iritziko ziolakoan, aurrez aurre eta gizonez gizon (ez dakit, atera zait esamoldea nahiz eta niretzat hutsala izan, baita aitarentzat ere, agian, ordurako) mintza gintezkeelakoan, nahiko denbora pasatu zelakoan eta esperientzia zahar bati buruz bezala hitz egin ahalko zuelakoan; baina orduan ere betartea ilundu zitzaion, eta nahiago zuela horretaz ez hitz egin esan zidan. Etzaidak gogorarazi, seme, esan zidan, ahots apalean, poliki, baina kontestarik ametitzen ez zuen moduan. Bakean utzi nuen, jakina. Ez dakit, dena kontuan hartu, osagarri guztiak kokteleran sartu, astindu, eta uste dut ateratzen zen likoreak ez zuela beldurraren ahogozorik, ez zuela zerikusirik porrot sentsazioare-

kin, ez miseria fisikoarekin; uste dut barneago tinkaturiko zerbait zela, nola esan. Azaltzen baneki.

– Ahora vamos a ver si tú eres euhkara.

Nire hankak eta nire besoak, eskuak, hatzak, nire apendizeak jada ez ziren nireak, gomazkoak balira bezala erabil zitezkeen pilota hanpatuak baizik. Zure buruaz kanpo egotearen bizipen estrainio hori... Ataka beretik pasatako beste batzuekin mintzatu naiz inoiz, denek baieztatu zidaten; are, zer edo zer ere irakurri dut, urteak pasatuta, eta badirudi, lekukotasun idatziei eta gaiaz arduratu direnen hitzei kasu egitera, nahiko arrunta dela. Baina alderdi fisikoa, gogorra izanagatik ere, ahazten den lehena da, bertan geratzen ez bazara edo bizi artean mankata uzten ez bazaituzte, bederen. Bai, badakit itxura batean, hortik pasatzea posibilitate beldurgarri bat denean, baina posibilitatea besterik ez, horrexek dirudiela ikaragarriena, askok uste duela horixe izan behar dela okerrena, hainbatek uste duen bezala kontu fisikoa, azken batez, eramangarria dela esaten denean beldurra kentzeko ahaleginean gabiltzala. Baina ez, ez da hori; egia

da alderdi fisikoa izugarria izanagatik, ez dela txarrena. Bada besterik, gogorragorik, sakonagorik, esanezinagorik... Ez dago hitzik, edo hitzak ez dira iristen, alferrekoak dira. Ea «euskara nintzen» galdetu zidaten hainbatgarrenean ezetz esan behar izan nuen, noski. Umiliazio bat zen, jakina, umiliazio segida luze baten lehena, baina umiliazio horiek eta haiei dagokien beste aldeko ustezko garaipen airea ere hutsaren hurrengo iruditu zait urte luzeetan, ume anker batzuen jolas ilun bat, baina umekeria bat, azken finean, eta hala iruditzen zait orain ere. Hori ere ez da, ez da, bizitza ukoen, galeren eta errenuntzien batuketa etengabe bat baizik ez denez. Ordea, behin eta berriz itzultzen zait gogora nire hasierako une hartako inozentzia itzel, neurrigabe, alimale hori, zigarroa eskaini zidanaren galderari azalpenak emanez erantzun nahi izan nioneko une hori, eta hori gogoratzen dudan aldioro halako lotsa jasanezinezko bezalako bat hasten zait barru-barrutik ernatzen, eta gorputz-ardatzaren erdian pospolo bat piztuko balitzait bezala da, eta pospolo horren garra, hasieran txikia, badoa handitzen eta handitzen, eta tripak

erretzen dizkit, eta erraiak, eta nire baitan dagoenak oro kiskaltzen du azkenerako, halako moduz non azkenean su horrek masailak ere harrapatzen dizkidan, eta ni, neure osoan, suzko bola ito bat banintz bezala den, eta horregatik da ez dudala sekula horretaz hitz egin nahi izan, badakidalako su hori nire barnean bizi dela, lo gehienetan, baina bizi, eta ez dudalako piztia iratzarri nahi. Eta lotsazko su bat da, ongi entzun duzu. Zeure buruari galdetuko diozu, seme, agian, zergatik. Iritziko diozu, noski, nik ez dudala horren errurik, ni biktima nintzela, besteak direla lotsatu behar zirenak, are, azalpenak eman nahi izateak berak adierazten duela ongien zer puntutaraino nintzen errugabe eta biktima. Eta bai. Baina... Baina ni ez nintzen bertan gelditu, eta munduan askok ezin du horrenbeste esan. Ez, ez da gelditu ez izanagatiko lotsa, ez horixe, besterik ez genuen behar. Esan nahi dudana gelditzen denerako hor bukatzen dela dena, baina bizirik ateratzen denarentzat... Baina puntu honetan nire buruaz harantzago egiten dut salto, eta hasten naiz amaz pentsatzen, eta zure arrebaz, eta zutaz, eta nire gurasoak zirenez, eta

anai-arrebez, eta adiskideez, eta ezagunez, eta kideez... Eta orduan oinaze itzel batek bereganatzen nau, negar egiteko gogo infinituak, itsasoak, eta mendiak, eta basamortuak baino handiagoa eta iraunkorragoa den esan ezinezko pena erraldoiak. Azken-azkenean pena alimale horrek den-dena hartzen baitu bere baitan, eta ordutik aurrera negarra baizik ez baita geratzen, negarra, oinazea eta desolazioa. Eta den-denarengatik egiten da negar. Den-dena, ulertzen? Benetan ulertzen duzula ondo? Orduan ulertuko zenuen den-dena horren barruan ni hilduratu ninduten horiek ere sartzen direla. Ez barkatu ditudalako, ordea, ez maite ditudala edo maite behar ditudala uste dudalako, ez horixe, baizik eta konturatzen naizelako, hondar-hondarrean, haiek, gu bezala, pasta berberaz eginda daudela. Gizon batek beste gizon bati egiten diona, gizateriak gizateriari egiten dio. Eta ideia hori ezin eramana zait, ezin jasana; ez horratio faltsua edo gezurtia. Orduan ulertzen dut eromena eta absurdua baizik gorde ez dituen amildegi bat ireki zaidala oinen azpian, eta urrats bat aurrera eginez gero, galduta nagoela. Hortik aurrera ire-

kitzen den eremuan ez dago hitzik. Ulertzen duzu orain?

Aita urtebete eskas dela hil zitzaigun, eta ordutik behin eta berriz itzultzen naiz hitz haueta-ra, ulertu nahiz, ulertzen saiatuz.

Gizona teilatu gainean

> A zer nolako bidea eginda zeukan Italiako gizarteak! Bi partisano, bata nekazaria eta bestea ikaslea, elkarrekin matxinatu ziren bi lagun, Italia errotik berregin egin behar zelako ideiaren alde, eta begira non zeuden orain: zer bilakatu ziren! Orain, mundua zen bezala onartzen zuten bi lagun ziren, diruari atxikiak, eta beste garai bateko burgesiaren bertuteen jabe ere ez zirenak; eraikuntzaren bi txapuzero, ez zoriz elkarren sozio bilakatutakoak, eta, noski, elkarri ziria sakatzen lehiatzen zirenak.
>
> *Espekulazio inmobiliarioa*
>
> ITALO CALVINO

Gizona etxeko teilatu gainean dago, agudo pasatzen diren hodeiei beha, euria ekarriko ote duten beste kezkarik ez duenaren aurpegiaz. Ordea, fatxada gaineko erpinetik maindire bat eskegi du, eta bertan kaligrafiari ordu luzeak eskaini dizkionaren trebeziazko letrekin, hauxe dago idatzita: «Nire etxea nire hilobia da».

Jakina, maindireko letra txukun horiek teilatu gaineko gizonak idatzi ote dituen edo beste

batek idatzi dizkion jakiteko, egunkariak aurreko egunean albistea eman zuenean esaten zuena baino gehiago jakin behar da. Eta nik badakit berak idatzita direla. Etxeko teilatuko bizkar gainean eseririk, hanka bakoitza isurialde banatan luzatzen duen ero itxurako gizon hori, nire anaia baita.

Lehen kotxe barrutik begiratu diot. Gorreriak jota egonik ere, nire autoaren motor-hotsa entzungo zuen arren, ez du begiratu ere egin, eta infinituraino luzatu du soakoa, ile txuri urria baino luzea eta bizarra haizeak astintzen dituela. Ohol-zati batzuen gainean itsasoa zeharkatzen duen naufragoa dela otu zait.

Gero autotik irten eta etxerantz hurbildu naiz, bera dagoen alderantz, dena broma bat balitz bezalako tonua entseatuz, hau esanez:

– Santos, Santos... ze, ez al gara handik jaitsiko?

Zakur zaunka batzuk entzun dira, eta etxe barrutik nigana datorren zakurra ikusi dut, atzean eskuak keinu urduriez mandarrean lehortzen dituen andre txiki bat duela. Zakurra lasaitu dut eta bi musu eman dizkiot nire koinatari.

– Orain hiru egun igo zen eta ordutik ez da ezertarako ere jaitsi. Ezta bere eginkariak egiteko ere.

Nire koinatak gorrituak ditu begiak, eta keinuera etsitua.

– Hotza harrapatuko du. Eta hezurrak...

Kontsolatuko nuke kontsueloa balego. Koinatak ulertu du.

– Gurekin bazkalduko al duzu?

Ezetz esan diot aitzakiaren bat ateraz.

– Aspaldiko!

Anaiaren ahotsa teilatutik iritsi zait. Koinata etxe barrura itzuli da, bere eginkizunetara. Tresnak negarrez garbitzera, alegia.

– Ez al duk jaisteko asmorik?

– E? –anaiak eskuak jarri ditu belarri atzeetan. Haizea zakar samar dabil, entzun nahi ez denaren konplize.

Begira-begira geratu natzaio. Aguretua ikusi dut. Hirurogeita bost urte ditu. Badakit hori nik hirurogeita bi ditudalako.

– Arazorik haiekin? –galdetu dut, hatz lodiaz atzerantz seinalatuz, baina burua itzuli gabe.

– Arazorik, arazorik... –dardarizo txiki bat eragin dio eskuari, ezker-eskuin, erantzutean–. Hispano-Olivettikoak ez zaudek herritarra laguntzeko, prezisamente...

Nire anaiak askoz lehenago ikusi zuen txapeloker bat idazteko makina bat baino, soldadutzara joan arte ez baitzuen halakorik ikusi, Hispano-Olivetti bat, hain zuzen. Hain egin zion inpresio handia ze, geroztik, halaxe deitu ohi die eltzetzuei, txapelokerrei, trikornioek marka horretako idazmakinaren antza dutelakoan. Jeep pare bat zeuden bailara zabaltzen den parajearen aurreko zintzurrean, Fagusetiako jendeak esanguratsuki «atea» deitzen duen tokian, parajea bataiatu zuen hizkuntza eta are ia horren memoria ere galdu duten arren.

Nire anaia zeruari begira dago, zerbaitek kezkatuko bailuen.

– Ura ekarriko al du?

Anaiak aurpegiko muskuluak uzkurtu ditu apur bat.

– Badakik Desiderio ospitalean dagoela?

Anaiaren etxe handiaren aurrean soro zabal eta lau bat dago, mugak burdin-harizko hesi

batez markatuta dituena; perimetro horretan, pago handi bat dagoen tokian, hesiak langa bat du, eta beste aldera dago Desiderioren lurra eta borda. Anaia eta biok, txikitan, pago handian ibiltzen ginen jolasean, zuhaitzetik gora eginez, gauzakiak eta kuttunak adarretatik eskegiz. Behin belatz batek habia egin eta arrautzak ostu genizkion. Zakarrak ginen. Baina ezer ez Desideriorekin konparatuz; pagotik gertu, bere lur-sailaren barruan, lazoan harrapatutako basurdea makilkadaka akabatzen ikusi genuen behin. Beste batean hartz-emea eskopetaz bota zuen, eta labanaz errematatu. Edo bazitekeen bi balentria horiek ez izatea erabat horrela, baina guk hala izan balira bezala ikusi genituen beti.

– Medikuek ziotek giltzurruneko zerbait duela. Giltzurruna! Nik bazakiat zer daukan horrek! Borda botako zutela jakin zuenetik gaixotu huen.

Desiderio bakarrik bizi zen, mendi haietan beste asko bezala. Noizean behin bateon batek bere buruaz beste egin ohi du.

– Nire adiskide guztiak hil dituk –iragarri du anaiak, «bai, euria botako du» esango balu beza-

la. Eta begiei erreparatuta, ez litzateke aise antzemango.

– Alkatea pasatu da? Mintzatu haiz berarekin? –galdetu dut nik, deseroso.

Orain harriduraz beteriko begirada bat egin dit, ulertzen ez duelako edo.

– Alkatearekin mintzatu? Bai, pasatu duk, baina, zertarako alkatearekin mintzatu?

Anaiak arrazoi du. Alkatearen nolakoaz neuk beste inork baino gehiago dakit, eskolara elkarrekin joan ginen eta. Eskola garaian, alkateak, anaiak eta nik neronek bezala, ez zekien zer zegoen mendiaz beste aldean. Orain ere ez daki. Beste batzuk saiatu ginen jakiten, eta ikasi genuen patroiaren morroiak izateko jaioak ginela; matxinatu ere egin ginen, tarte batez, aspaldi dela, matxinatzeak ez zuela ezertarako balio ikasi arte; finean ikasi dugu ez genuela izan nahi beste jostailu bat patroiaren seme-alabaren gelan, eta hori da dena.

– Eta gainera, kasu honetan, ergela ez balitz ere ez likek zer eginik.

Biribildu du anaiak, pentsamendua irakurri izan balit bezala.

– Demokratikoki ergela, hori bai.

Begiratu ditut etxe inguruko pentzeak, basoak, mendiak. Buruz dakizkit zoko guztiak. Buruz dakit, esaterako, etxe atzeko amildegiko zirrikituetan sai zuriak habia egiten duela. Eta amildegi bera zeharkatzen duen errekan uhandreak eta arrabioak bizi direla. Ezagun zaizkit, halaber, usainak eta soinuak oro. Esaterako, haizeak, hostoen arteko zirrikitu guztiak profitatuz, basoko organoa jotzen dueneko hori, oraintxe entzuten ari naizena. Dagoeneko aranondoak badoaz fruituz zamatzen, eta elurrak kaskoak estaltzen dituenean agertuko da erbinude zuria, eta elureperra. Urrutitik ikusten ahal dira basurdeek gauez jorratutako larreak. Oroigarriak, zokobetailuak; hiriburuko esku gurien apaingarriak, euren kontzientzia txarra isilarazteko segundo bateko argudioak baizik ez, mundutik kanpo, bizitzatik kanpo: beste jostailu bat patroiaren seme-alaben gelan. Neska-mutilak hiriburura doaz eta Desiderio edo nire anaia bera bezalakoak baizik ez dira gelditzen. Basurde zaharrak. Nik al daukat errua, ala?

– Noiz etorriko dira?

Anaiak zalantza adierazi nahi duen keinua egin du.

– Bi egun, agian hiru.

– Eta nola izango da?

– Hori hik jakingo duk hobeki nik baino.

Amorruak barrenak jan dizkit.

– Santos, hik badakik nik ez nuela sekula... Hemen ez, Santos, jainkoarren, Fagusetian ez!

– Et, et, et! Honelakorik ikusita egongo haizela esan nahi nian, besterik ez. Urtegia, eski-estazioa, edo golf zelaia egiterakoan, Gaztainondoran, Haltzakistan edo Zumarrondostanen.

Buelta erdi bat eman dut, anaiari bizkarra emanez eta honaino ekarri nauen Mercedes berri beltzari begira jarriz. Anaiaren tonuaren amorru falta da gehien amorratzen nauena. Autoaren kristal beltzak irudi bat itzuli dit, negarrari ezin eutsirik, malko bi matraila zeharkatzen zaizkion gizaseme batena, nirea alegia. Tristeziazko malkoak dira, amorruzkoak ere bai, nire anaia handik jaistea nahi nukeelako, ez, nire anaiaren ondora joateko arrazoi bat eduki nahiko nukeelako, ez, nire barneko lizuna ikusarazi nahi didan kabroi bat delako, ez, nik egon behar-

ko nukeelako bera dagoen tokian, ez, nik zakarretara bota dudan eta jada edukiko ez dudan garbitasun bat atxiki duelako bere bizitzan, bere eginetan, bere baitan.

Bai, anaiak arrazoia zuen. Banekien nola izango zen. Izan ere, uste baino errazagoa izaten da; hondeamakinak sartuko zituzten, eta... Malkoak idortu direla sentitu dudanean itzuli naiz berriz anaiarengana.

– Gorrotatzen nauk, ezta?

Anaiak besoak zabaldu ditu, keinu gehiegizkoaz.

– Nola gorrotatuko haut, ba! Nire anaia haiz! Nire anaia bakarra!

Zoru gaineko harri legarrak zanpatu eta nahastu ditut oinetakoaren puntaz, harriak lurraren kontra marruskatzean egiten duen urratu-hotsa ateraraziz, bi eskuak txaketaren poltsikoetan sarturik, burumakur, eta harriak bihotzean ildoak nola irekitzen dituen sentitu dut.

– Ez haiz jaitsiko, ezta?

– E? –eskuak jarri ditu belarri atzean.

Hasperen egin dut. Alde egiteko tenorea da. Badakit zer egiten ahal den naufrago baten alde,

hondeamakina datorrenean, eta hala ere galdetu dut:

– Nahi duk zerbait egitea?

– Ez, hik ezin duk deus egin nire alde...

Baina bat-batean isildu da, eta hor goian dagoen arren, ñir-ñir bat ikusi ahal izan dut bere ninietan.

– ...edo agian bai.

– Hik esango duk –kondenatuaren azken nahia entzun behar dudalakoa egin zait.

– Hoa pago handira, eta eskegi ezak gure aita zenaren erretratua hik dakian adarretik.

Hasperen lumadunak

– Teknikaria iritsi da!

Hotsa olioa bezala zabaldu zen. Teknikaria autoa utzi eta oin bat lur gainean jartzerako, jendea etxeetatik eta arkupeetatik ateratzen hasi zen, inork usteko ez zuen kopuruan, bestela kasik abandonatua zirudien herri hartan. Teknikaria, lehengo ustekabea garaiturik, harrera-batzordea, Pepe Isbert buru zuela, noiz azalduko jarri zen. Ez zen harrera-batzorderik izan, noski, baina eszenak, hala ere, bazuen behialako bihurtzen zuen zerbait. Aurrez susmatu bezala, lurra lokazturik zen, eta horrenbestez teknikariak bere burua zoriondu zuen trekineko botak janzteko bezain zuhurra izan zelako. Ez zuen asko galdetu behar izan nora jo behar zuen jakiteko.

– Lezenbordako bidean dago.

Alkatea uste zuenak gidaturik ekin zion seinalatzen zioten bideari. Lokatz handia zen, benetan, eta une batez geratu egin zen, galtzerdi lodiak praka barrenen gainetik ipintzeko.

– Ardia Almirantenekoa zen.

Hori esan zioten, baita beste hainbat datu ere, teknikariarentzat alferrekoak zirenak edo, besterik gabe, ulertezinak; izan ere, txikitan handik ibilia zelako baizik ez zuen parajea ezagutzen. Gogoan zuen mendi zabal haren goiko puntatik, Aiako Harritik Huescako Collaradaraino ikusten zela, eguraldiak laguntzen zuenean.

Iritsi ziren. Handik hurbil etxola bat ikusten zen, huraxe omen zen Lezenborda. Ardia bidetik atera eta bordaranzko belardian zetzan, hilik, inolako zalantzarik gabe. Odol ugari zegoen eta tripak airean zituen. Bordatik ardia zegoen tokira ez ziren hamar metro izango. Teknikariak paper bat atera zuen besapean zeraman karpetatik, zinta metriko bat soineko poltsikotik, eta argazki kamera digital txiki bat. Neurriak hartu, krokisa margotu, argazki batzuk egin zituen. Noizean behin galderaren bat egiten zuen, ondoko gizon batek, ardiaren jabeak inondik ere, erantzuten ziona. Erantzunek «omen», «nonbait», «ei» eta, orokorrean, litezkeen modulatzaile guztiak eramaten zituzten, ardi-jabeak segurtasun osoz deus jakingo ez balu bezala. Gaztelaniaz ari zen, hori bai; gaztelania mordoilo samarrean,

dena esatera, euskara berriki galdu eta erdara erabat menderatzera iritsi ez diren Pirinioetatik hurbileko herrietan, edade batetik aurrerako jendearekin, usu gertatzen den bezala. Ardia zegoen tokitik gertu, soka-mutur bat ikusi zuen, odoleztatuta. Argazkia egin zion, eta galdetu:

– Eta soka hau?

Ardiaren jabeak bizkarrak harrotu zituen, isilik, omenka hitz egiteaz asperturik, ausaz.

– Norbaitek ikusiko zuen, ezta? –teknikariak.

– Artzainak.

Artzaina ez zen ardiaren jabea, beraz.

– Eta non dago?

Artzaina ondoko herrian bizi zen, handik hamar kilometrora, nonbait.

– Bidaliko dugu norbait bila?

Teknikariak esan zuen ez zela beharrezkoa, eta autora itzuli zen. Ardo bat edo zerbait jan nahi ote zuen eskaini zioten, tabernarik ere ez zeukan herri hartan. Teknikariak ukatu egin zuen. Gero beste paper batzuk atera zituen karpetatik eta ardiaren jabeari luzatu zizkion, azalpenak ere emanez. Azkenik lasaitu zuen.

– Zuk esandakoa egin eta administrazioak erantzungo du –esan zuen tonu hotzez. Gero autoan sartu zen eta hirirako bidea hartu.

Behin auto barruan, kasetea piztu eta hasperen egin zuen. Laugarren kasua zen bi astetan, psikosia barreiatzen hasia zen, eta teknikaria aspertzen. Saiek mendeetako ohiturak aldaturik, orain azienda erasotzen omen zuten. Teknikariari erdeinuzko bafada-hotsa atera zitzaion pentsatze hutsarekin. Beharrik azken herri honetatik etxera ordu erdiko bidea baizik ez zegoena.

Etxera iritsi zenean hiru t'erdiak ziren, emaztea bazkaltzen ari zen.

– Sentitzen dut. Beste ardi bat, X herrian. Zerbitzuburuak nahi zuen gaur bertan egitea hango kontua.

Emazteak bestelako buruhausteak zituen.

– Anderren irakasleak deitu du; gurekin hitz egin nahi du. Anderrek sozializazio arazoak dituela dio, ez dela ezer baina apur bat kezkatuta dagoela.

– Joango zara?

– Zu ez zara etorriko?

Ez zen galdetu behar zer gertatuko zen joaten ez bazen.

– Noiz?

Bi egun geroagorako geratu ziren.

Hurrengo goizean, zerbitzuburuak bere bulegora deitu zion. Teknikaria ez zen horrelako gorabeherez gehiegi arduratzen, baina hala ere nabari zuen goiz hartan mugimendua bazebilela zerbitzuan. Zerbitzuburua gizon lasaia zen, bizitzea eta bizitzen uztea gustatzen zitzaion horietakoa, baina aginduak betearazten zekiena.

– Kontseilariak txosten bat nahi du, eta orain-txe nahi du.

Teknikariak hasperen egin zuen. Txostena egitea gutxienekoa zen.

– Bai, noski... –zalantza egin zuen–. Eta zer idatziko dut txostenean?

Zerbitzuburuak baietz egin zuen keinu batez, konturatzen zela, alegia.

– Kontseilariak atzo bilera bat eduki zuen erasoak gertatu diren aldeko herrietako alkateekin. Kontseilariak ez ditu disgustatu nahi. Haserre daude. Saiarekin gehiegizko babesa erabili dugula diote, koloniak neurrigabe hazi direla, ez

daukatela nahiko abere hilik jateko, goseak daudela, eta horregatik erasotzen diotela ganaduari.

– Baina hori ezinezkoa da –teknikariak–. Txorakeria itzela. Saia ez da ehiztaria; ez dauka horretarako atzapar, moko, hegada egokirik. Saiak mende luzeetako bilakaera eduki du sarraskijale izatera iristeko.

– Begira, seme –semetzat hartzen zuen, trataeran, batzuetan; bere agintzeko modu natura-la zen–, herri horietako etxe bakoitzean eskopeta bat dago, gutxienez. Batzuetan bi edo hiru, are lau ere. Utzi diezaiegun tiro batzuk botatzen, ordain ditzagun kalte-ordainak, lasaitzen diren arte. Putre bat gehiago, putre bat gutxiago, zer inporta du horrek.

– Erokeria da. Dena aldatu da: artzaintza, artzainen bizimodua, esplotazioak, herrien fisionomia, laboreak, basoak... Eta saiari egozten diogu ohiturak aldatu dituela. Nola hasiko ziren orain, bada, beren ohiturak aldatzen? Dagoeneko ez du balio Darwinek esan zuena, ala?

– Darwinek ez digu hauteskundeak irabazten lagunduko.

Arratsalde hartan teknikariak hiri hartan bertan bizi zen herriko lagun batekin hartu zituen zerbeza batzuk.

– Putre bat gehiago, putre bat gutxiago, zer inporta du horrek. Darwinek ez diela hauteskundeak irabazten lagunduko. Horixe esan zidak. Eta nik tragatu.

Adiskideak ez zekien gauza handirik saiei buruz.

– Ño, barkazak, baina hola esateko, normal-normala ere ez duk.

Teknikariak irribarre triste samarra egin zuen, eta hasperena.

– Lehengoan X herrian egon ninduan. Ardi bat zegoken, hilik, odolustuta. Badakik zer aurkitu nian ardiaren ondoan? Soka-mutur bat, odolez blai. Galdetu nian, eta denak isilik, inork ez zekiken ezer. Artzainak jakingo zuela, baina artzaina ez egoki, eta dena zuan aitzakia. Kasu guztietan berdin gertatu duk. Ulertzen?

Adiskideak ez zuen deus ulertzen.

– Ardia lotuta zegoken, motel, lotuta. Nik lau kasu ikusi ditiat; bietan ardia ernari zegoken,

beste bietan gaixo. Eta denetan sokarekin lotuta.

– Baina saiek mokoka hilik. Ez al da hala?

– Bai... Hi, konpreni ezak gauza bat; saiek ez ditek animalia bizirik ehizatzen eta jaten ezin dutelako, ez gustukoa ez dutelako. Aukera edukiz gero... Hik jarriok sai bati ardi gaixo bat ondoan, lotuta, eta hortxe hasiko duk poliki, mokoarekin, ttak-ttak, behin eta berriz; ikusten badu inork ez duela molestatzen, ardiak ezin duela ihes egin, edo defenditu, segi egingo dik, ttak-ttak, zauria egin arte. Ardiak odolustuta hil dituk.

– Laurak?

– Laurak. Hori erasoa dela esatea...

– Beste modu batera esanda –adiskidea ulertzen hasia bide zen–, hik jarriok sai bati tripaki lata aldamenean, eta erakutsiok lata irekitzen, eta berdin jango dik tripaki lata.

– Edo erakutsi sardexka dantzatzen, eta jarriok aldamenean espageti-platerkada.

Teknikaria eskolako irakaslearen bilerara joan zen, emazteari lagun eginez. Ordu erditxo bat egin zuten irakaslearekin. Gero etxera itzuli

ziren eta bazkaltzera eseri. Emaztea apur bat goibel zegoen.

– Tira, ez da hainbesterako –esan zion teknikariak–. Anderri ez zaio deus larririk pasatzen.

Hori esan eta zopa apur bat xurgatu zuen. Koilara hustu gabe, ordea, berriz mintzatu zen, ideia berri bat buruan:

– Edo, nahiago baduzu, gauza bakar bat pasatzen zaio: oraindik euskaraz baizik ez dakiela, horra.

Gero kalera irten zen berriz ere, nahiz eta bere lanegun arrunta eguerdian bukatzen zen. Baina hirian bazegoen arazo bat estorninoekin, eta zita egina zeukan udaleko parkeen arduradunarekin. Arazoa zen estorninoak saldo handietan zebiltzala parkeetan, izurrite bihurtuta, eta bazter guztiak zirinez zikintzen zituztela. Auzokoak eta, orokorrean, parkeen inguruan autoak aparkatzen zituztenak, haurrentzako kolunpioak erabiltzen zituztenak, bankuetan eseri ohi zirenak, denak kexaka zebiltzan. Parkean elkartu ziren.

Udaleko langilea bueltak ematen zizkion asuntuari.

– Ez da erraz konpontzen den arazoa. Ez gaitezke ibil egunero petardoak botatzen, eta ezin dugu neurri gogorragorik abian jarri. Esaterako, tranpak jarriz gero, edo depredadoreak sartuz gero, baliteke erremedioa gaixotasuna baino okerragoa izatea.

Gure teknikariak ulertzen zuelakoa egiten zuen, buruaz.

– Ultrasoinuen bidezko metodo bat aztertzen ari gara, enpresa batek eskaini digu...

Udaleko teknikariak bere iritzia jakin nahi zuen.

– Konforme, emaidazu aste bat asuntua aztertzeko eta esango dizut zer iruditzen zaidan –erantzun zuen, hasperenka.

Agur esan zioten elkarri. Gure teknikariak, alde egin baino lehen, oraindik eduki zuen astirik zerura begiratzeko. Urrun, baino begiez ikusi ahal izateko bezain hurbil, zerua larderiatsu zeharkatzen zuen zerbait ikusi ahal izan zuen; hasperen lumadun bat bezalako zerbait. Sai bat. Egia zen saien populazioa biderkatu zela urteotan, beste garai batean ezinezkoa litzateke sai bat hirian bertan ikustea. Baina bere iritzirako,

kalte baino, onura ekartzen zuten saiek. Zergatik zien jendeak halako amorrua? Gero barruti hartan berrogeita hamar mila eskopeta zeudela etorri zitzaion burura, hauteskundeak laster zirela, eta hasperen lumadun haren bizia luxuzko apaingarri bat iruditu zitzaion, sabaitik, hari ikusezin batetik zintzilikatutako kartoizko jostailua. Eta ez denen gustukoa. Bi ideien artean ageriko loturarik ez zegoen arren, burura etorri zitzaion bere gurasoek, euskaldun petoak izaki, ez ziotela inoiz euskaraz hitz egin txikitan, etxean.

Teknikariak etxera egin zuen berriz ere.

– Markelek deitu dizu, berriro –iristean, emazteak.

– Berriz ere! Mierda! –baxutik esandako biraoa zen, sentitua.

– Esaiozu ezetz, behingoz, eta horrela lasaitua hartuko duzu, gizona.

– Izan ere, hain erraza balitz...

– Orduan esaiozu baietz.

– Baietz esan!? Baina zuk zer nahi duzu, lanetik bota nazaten, edo zer!

Emazteak sagar bat hartu zuen frigorifikotik eta telebistari begira jarri zen. Minutu batzuk pa-

satu ziren arte ez zuen berriro hitz egin, telebistari begirik kendu gabe.

– Nik ez daukat ezeren errurik, laztana –hitzak bere hartan goxoak ziren, baina bazen etsipen puntu bat tonuan–. Edonola ere, zerorrek argitu beharko duzu zure burua, eta zerorrek konpondu zure ezinegonak.

Markel ekologista zen, teknikariaren behialako laguna. Beste garai batzuk ziren, Organbidexkara joaten zirenekoak, ornitologia-behaketak egitera, lehen ugatz-alea ikusi zuenekoak, Organbidexkako etxolan zebilen Normandiako ornitologo bati galtzerdi izerditu bat eman zionekoak, ornitologoak adiskidetasun-frogatzat eman zion aspaldi luzean garbitu gabeko ile-xorta baten truke. Ordutik hona, sai arrea pasatu zen desagertzeko zorian zegoen espeziea izatetik hazten ari zen dezenteko populazio egonkorra izatera.

Markel saien ustezko erasoei buruzko mahainguru bat antolatzen ari zen, eta nahi zuen berak parte hartzea, administrazioaren ordezkari.

– Ezin naiz joan. Ezin naiz joan uste ez dudana esatera, eta ezin naiz joan uste dudana esatera.

– Esaiozu Markeli. Horrenbeste ulertuko du.

Teknikariak irri zakarra egin zuen. Emaztea konturatu zen lehen aldiz, bere senarrari ile-galtzea areagotzen ari zitzaiola azken garai horietan.

– Markelek ulertu? Traidore bat naizela esateko aprobetxatuko du.

– Eta traidore bat zara?

Teknikariak barneko amorru guztia atera zuen.

– Traidorea naizen? Esadazu zuk.

Emazteak so egin zion, begiak triste.

– Ezin duzu honela segitu, horixe da nik esan nahi nizun guztia.

Gau hartan, teknikariak amesgaiztoa eduki zuen: sai batek zerua zeharkatzen zuen, geldo eta solemne; azpitik, berrogeita hamar mila eskopetek egiten zioten apuntea. Saia hodei baten atzean ezkutatzen zen, eta hodeitik ateratzean Anderren aurpegia zeukan.

Suhiltzaileak

EPILOGOA

– Pasa hidranteen mapa!

Kaboak mapa pasatu baino lehen, eskuetatik erauzi zion sarjentuak. Ur-hartunea ez zen inondik ageri, nahiz eta mapak argi erakusten zuen handik oso hurbil hidrante bat egon behar zela.

– Mekaguendios!!!

Larrialdietako kamioikoak ziren, lehen ateraldikoak. Hiru mila litro ur, hiru gizon, kaboa eta sarjentua. Balkan Txiki editorialak eraikuntza aski handia betetzen zuenez, iritsi eta hamar minutura bukatu zitzaien ura. Sua handiagotzen ari zen.

– Berriz esango ditek suhiltzaileak urik gabe iritsi zirela. Beti bezala –arranguratu zen kaboa.

– Mugi hadi, ostia. Hemen ez bada C-5ean egon behar dik beste bat –sarjentuak, mapa seinalatuz.

Kaboa kamioi-zisternaren bolante atzean jarri zen, eta C-5 aldera gidatu zuen. C-5 puntua hurbil zen, industrialdeko eraikin-multzoaren atzeko

aldean. Berehala topatu zuten hidrantea. Tapa altxatu eta mangera ur-hartunean konektatu zuten. Goiko leihoak garretan zeuden jada, hotsa gero eta handiagoa zen. Haizea zebilen. Kamioi nodriza eta errefuertzoak etorriko ziren, bai. Halako batean. Beharrik argitaletxeak beste sarrera bat zuen atzeko alde hartatik.

– Mekaguendios! Sartu beharra zagok! –sarjentuak, berriz.

– Hiru horiek ez dituk sartuko behintzat –kaboak, kamioiko atzeko aldera seinalatuz.

Han atzeko aldean hiru suhiltzaile zeuden, kuzkurtuta. Gazteak ziren, suhiltzaileetan hasi berri, eta beren lehen sute handia zen. Editorialaren eraikuntzan sartu ziren lehenak haiek izan ziren, beren norbanako ekipoekin, artean kamioiak ura zeukala, baina hamar minutura bueltan zeuden, urik gabe, eta bonbonetako airea zurrupatuta, ia guztiz.

– Mekaguendios! Dena txupatu duk? Aire dena txupatu duk hamar minututan, e!? Mekaguendios!!!

Hiru nobatoak dar-dar batean zeuden, uda bazen ere, termometroak hogeita hamar gradu

markatzen bazuen ere, suaren aurkako jantzi berezi eta lodia jantzita bazeramaten ere. Eta bonbonetako aire dena gastatuta zuten.

– Akojonoa... –esan zuen kaboak.

– Mekaguendios!!!

Sarjentuak irizten zion bera ordurako nahiko su itzalita zegoela bere bizitzan, eta sobra ere, berriz larrua suari eskaintzen hasteko.

– Mekaguendios! Hi eta biok sartu beharko diagu, berriro!? Ez al dugu nahikoa su itzali honezkero!?

Kaboa bere ekipoko aire-bonbonaren uhalak doitzen ari zen ordurako. Berrogeita hamarretik ez ziren oso urruti ibiliko, plantari eusten zioten arren, nekez bazen nekez. Sartu aurretik, nobatoetako batek esan zuen eraikineko lehen solairuko lurreko zurajeak su hartu zuela, dena erortzeko arriskua zegoela.

– Mekaguendios!!!

Barruan liburuak erretzen hasiak ziren, ke beltz eta lodia sortuz. Ez zen ia deus ikusten. Kaboa eta sarjentua bizkarra paretaren aurka aurreratu ziren, izerditan, eraikuntzan barrena, ura ausarki botaz, txorrota nora zuzendu behar

zuten oraindik garbi ez jakin arren. Tarteka ura elkarri botatzen zioten burutik oinetaraino. Kaboak keinu bat egin zion sarjentuari, goiko pisua seinalatuz. Ez zuen itxura onik.

– Mekaguendios!!! –baina garren hotsak ito zuen sarjentuaren biraoa.

Mundu guztiak jakingo zuen geroago sua nola hasi zen: Balkan Txiki argitaletxearen arduraduna bera izan zen sua probokatu zuena; dirudienez, egun hartan bidoi bat gasolina erosi zuen, argitaletxeko lau langileei kanpora joateko agindu, gasolina lehen pisuko behegainean barreiatu eta su eman zion. Balkan Txiki argitaletxe artesanala zen, produkzio laburra baina zaindua kaleratzen zuena, katalogo aski interesgarri baten jabe, zeinean, orokorrean, normalean «interesgarri» eta are «oso interesgarri» jotzen ziren idazleak nabarmentzen ziren. Ekonomikoki ez omen zen une ona pasatzen ari, baina hori, Balkan Txiki bezalako argitaletxe batean, esan beharrik gabeko gorabehera zen, *ça va de soi*. Hala ere, editoreak, ordu batzuk geroago bere burua entregatu zuenak, ukatu zuen inolako interes ekonomikorik –asegurua kobratzea, esate-

rako– egotea ekintza piromanoaren atzean, eta mundu guztiak sinetsi zion, asegurua kobratu nahi izan balu bestela jokatuko zuela konprenituz. Aitzitik, editoreak «nekea» eta «eroaldi iragankor baten mendean egon izana» alegatu zituen egun batzuk geroago, ekintzaren arrazoiak azaldu behar izan zituenean. Inork ez zuen horrelakorik jendaurrean esan, baina editorearen kolega batzuek ahapeka aitortu zuten bere jokabidea ez zitzaiela hain aparteko eta burugabea iruditu; izan ere, halako idazle «interesgarri» eta are «oso interesgarrien» elemenia bat edonoren eramana eta pairamena mila puska txikitan zartatzeko modukoa izan behar zen, eta denek gogoratzen zuten editorea bere kortakoak mimoz artatzen, bizkarraren gaineko esku-zarta amultsuak banatzen, animo eroriak altxatzen, idazle desmotibatuak adoretzen, idazle alferrak aupatzen, nartzisoak balakatzen, zalantzatiei segurantza ematen, seguruegiei frenoa jartzen; hasiberriei idazle interesgarriak izateko aholkuak ematen, interesgarriei oso interesgarri izateko gomendioak partitzen, eta jada oso interesgarri zirenei bere mukizapi propioa maileguan uzten

negar egin zezaten, eta are lepoa edo magala ere eskaintzen mukizapia sobera umel eta mukiz beteta geratzen zenean; eta hau gero eta maizago gertatzen omen zen, zeren, editorearen aholkuak hain zirenez onak eta egokiak, oso interesgarritzat har zitezkeen idazleak erruz biderkatzen ari baitziren, perretxikoek klima-baldintzak alde dauzkatenean, eta horrela. Gauza hain omen zen nabarmena lanbidekoentzat, ze Balkan Txikiren lehiatzailerik zorrotz eta gogorrena zen Entelekiak argitaletxeko nagusiak –argitaletxe artesanal eta oso interesgarria hau ere– behin baino gehiagotan esana baitzien bere laguntzaileei ez zuela ulertzen Balkan Txikiko editoreak nola eusten zion, bera izatera, aspaldi suizidatu zatekeela, edo lanbidez aldatu, mukizapi fabrika bat ipintzeko, esaterako, edo sofrologia-kabinete bat. Eta kontrarioa apaltzeko asmoz botatako ironiazko hitzak ziren, noski, baina aieru txarrez tindatutako ironia batekoak, Entelekiak argitaletxeko editorea bera ere oso bolada txarra pasatzen ari zelako bere idazle oso interesgarriek ez ziotelako minutu bakar bateko bakerik ematen: batzuk kexu ziren inork elkarriz-

ketatu nahi ez zituelako, beste batzuk elkarrizketa gehiegi egiten zizkietelako, askok aholku literarioak ez ezik, bere bizitza pertsonaleko gorabeherak ere kontsultatzen zizkioten –alabari jaunartze egunean edo andreari urtebetetzean zer oparitu, jubilazio-plana nola prestatu, bigarren eskuko autoa erostea komeni ote zitzaien, bizarra eginda irudi hobea ematen zuten, eta beste hainbat–; bestalde, Entelekiak argitaletxeko idazle enblematikoena emaztearengandik apartatzeko prozesu betean zebilen, eta horren ondorioz, hain enblematikoa ez baina benetan osooso interesgarria zen beste bat urteroko jeloskorkeria atakeak jota zegoen, horrek ekarri ohi zituen edotariko ondorio ezagunekin. Eta guztiarekin ere, txarrena zen Entelekiak argitaletxeko arduradun nagusiak bazekiela edo susmatzen zuela hain artesanalak eta hain interesgarriak ez ziren argitaletxeetan ere egoera ez zela askoz hobea, entzuna baitzuen, adibidez, zenbait idazlek hartua zuela ohitura beren editoreen etxeetara afaltzera joatekoa, aldez aurretiko gonbitik edo gaztigurik gabe, gauero.

– Mekaguendios –sarjentu izerdituaren biraoa hasperen bat baizik ez zen oraingoan–, uste nian ez ginela bizirik aterako.

Baina sarjentuak pozik egoteko arrazoiak zeuzkan. Errefuertzoak eta kamioi nodriza sekula baino bizkorrago iritsi ziren su-lekura, bera eta kaboa laster atera ahal izan ziren eraikinetik, beso berrien etorrerari esker sua laster kontrolatu zen, eta ordu pare batean foku txiki batzuk baino ez ziren geratzen. Eta sua kontrolatu ahala, begiluzeak hurreratzen hasi ziren; hauen ondoren, kazetariak, hauen ondoren, Suhiltzaileen Partzuergoko presidentea, eta azken-azkenean, ke-zirimola indarge batzuk baizik ikusten ez zirelarik, dagokion agintari autonomikoa.

– Mekaguendios! –esan zion sarjentuak kaboari–. Hauxe duk amorrurik handiena ematen didana.

Bi suhiltzaileak zeuden tokitik gertu, agintari autonomikoak, Patzuergoko presidentea lagun zuela, plazer handiz eta aditu-airez azalpenak ematen zituen kazetarien aurrean, kamera txupatzeko presak gertatutakoaz informaziorik batere lortzea galarazi zion arren.

– Sua argitaletxeko ipar aldeko areto batean sortu da –azaldu zuen politikariak–, eskerrak prebentzio-zerbitzuek mirestekoa den zalutasunaz ekin dioten. Bai, kortozirkuitu batek eragin du.

Haize firin batek eramaten zituen hitzon hariak suhiltzaileak zeuden tokira, ustekabeko prentsaurrea gertatzen ari zen tokitik hogei bat metrora.

– Bai horixe –kaboak, marmarrean, patxada trufariaz–, berorrek nahi duena.

– Mekaguendios! Hau nazka!

Partzuergoko presidentea keinuka hasi zitzaien, hurbiltzeko kazetariak eta politikariak zeuden tokira. Ibilera nekatuaz hurreratu ziren, poliki, jantzietako kremailerak erdi-irekita eta kaskoa eskuan, izerditan oraindik, talde nagusiarekin batu ziren arte.

Bat-batean zerua irekiko balitz bezalako burrunba bat aditu zen. Editorea zen, zeina, tamaina ertaineko rotaflex bat eskuan, aparra ezpainetan eta begiak beren zuloetatik irtenda, politikariaren inguruan bildutako zortzi edo bederatzi pertsonen aurka amildu baitzen.

– Mekaguendios!!!